

A stylized, graphic illustration of a man with a beard and dark hair, wearing a dark jacket over a light-colored shirt. He is sitting at a desk, reading an open book. His hands are clasped together, resting on the book. The background is a simple, abstract representation of a room with a window and a desk. The color palette is muted, featuring shades of brown, blue, and grey.

BOOKTEGI

JOSÉ SARAMAGO

Zer egin behar dut liburu honekin?

itzultzailea: Pablo Barrio



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOSÉ SARAMAGO

Zer egin behar dut liburu honekin?

itzultzailea:
Pablo Barrio

AURKIBIDEA

1. EKITALDIA

1. Eszena: Almeirimgo Gortea, 1570ko apirila.
2. Eszena: Almeirimgo Gortea, 1570ko apirila.
3. Eszena: Almeirimgo Gortea, 1570ko apirila.
4. Eszena: Lisboa, Mouraria, Luís de Camões-en etxea, 1570eko maiatzaren hasiera.
5. Eszena: Lisboa, Gortea. Jauregiko saloia, 1570ko ekaina.
6. Eszena: Lisboa, Mouraria, Luís de Camõesen etxea. 1570ko ekaina.
7. Eszena: Vidigueira kondearen Jauregia.

2. EKITALDIA

1. Eszena: Castelo herria. Damião de Góisen etxea, 1571ko otsaila.
2. *Eszena:* Lisboa. Inkisizioaren Jauregia, 1571ko martxoa.
3. *Eszena:* Lisboa, Mouraria Luís de Camõesen etxea, 1571eko apirila.
4. *Eszena:* Lisboa. Inkisizioaren Jauregia.
5. *Eszena:* Egurats zabalean.
6. *Eszena:* Lisboa, Antonio Gonçalvesen moldiztegia, 1571ko urria.
7. *Eszena:* Lisboa, Gortea. Jauregiko saloia.
8. *Eszena:* Lisboako kale bat, 1572ko martxoko egun bateko arrastiria.

PERTSONAIAK:

Luís Gonçalves da Câmara – Jesuslaguna, D. Sebastião erregearen konfesorea

Martim Gonçalves da Câmara – Estatu idazkaria

D. Henrique Kardinala – Inkisidore nagusia, D. Sebastiãoaren osaba

D. Catarina da Austria – D. Sebastiãoaren amona, D João III.aren alarguna

1. Kaparea

2. Kaparea

Diogo do Couto – Indiako soldadua, kronikaria izango zena gero, *O Soldado Prático*-aren egilea

Ana de Sá – Luís de Camõesen ama

Luís de Camões

3. Kaparea

Fraidea

4. Kaparea

Miguel Dias – Gorteko kaparea

D. Sebastião

D. Francisca de Aragão – Gorteko dama

D. Vasco da Gama – Vidigueirako 3. kontea

D. Maria de Ataíde – Vidigueirako kontesa

Manuel da Encarnação fraidea – Vidigueirako konte-kontesaren konfesorea

Damião de Góis – kronikaria, Tombo Dorreko zaindari nagusia

Morroia

Beste fraide

Aita Bartolomeu Ferreira – domingotarra, *Os Lusíadas*-en zentsorea

Antonio Gonçalves – inprimatzaile

Zerbitzaria

Gertakizuna Almeirim eta Lisboan jazotzen da, 1570ko apirilaren eta 1572ko martxoaren bitartean, edo, zorrotasun kronologiko gutxiagoz baina egitatezko zehaztasun gehiagoz esanda, Luís de Camões, India eta Mozambiketik itzuli berria, Lisboara iritsi zenetik *Os Lusíadas* liburuaren lehenengo argitalpena arte.

Kantua, deserri honetan biziko zara,

ahots biluzia ageri,

denborak oihartzun bihurtu arte.

Camões

1. EKITALDIA

Lehenengo eszena

Almeirimgo Gortea, 1570ko apirila. Aita Luís Gonçalves da Câmara, jesuslaguna eta erregearen konfesorea; Martim Gonçalves da Câmara, Estatu idazkaria, Luís Gonçalves da Câmararen anaia.

Luís da Câmara

Batzuen memorian gozoak ez diren oroitzapenak utziak izango dituzu seguruenik Coimbran, anaia, bertako Unibertsitateko errektorea izan zinen garaikoak, modu honetan kalumniatua izateko, eta ni neu ere bide batez. Areriores bat izango da, edo zure aberastasunen inbidiatsuren bat, arerio izatearen eskutik doana azkenean. Arrazoi handia zuten antzinakoek esaten zutenean inbidia dela areriotasunera eramaten duen bide laburrena.

Martim da Câmara

Zaunka egiten duten txakurretatik eta mihi gaiztoetatik inor ez dago libre, are gutxiago erregearen konfesorea izanda, zeu zaren moduan, edo Estatu idazkaria, neu naizena. Horixe duzu ahaltsuek betidanik ordaindu beharreko ordaina. Intriga handiagotu ezean, utzi bere horretan.

Luís da Câmara

Konfiatuta ikusten zaitut.

Martim da Câmara

Eta nik zu kezkatuegia zaudela. Zure baimenaz, anaia, huskeriak besterik ez dira animoa uzkurtuta zaituzten horiek. Eta nork ziurtatzen dizu Unibertsitatean izan dela idatzia paper hori?

Luís da Câmara

Inork ez, ezta nik neuk ere ez nuen hori modu formalean deklaratu. Hala ere, Coimbran zabaldu dituzte panfleto horiek, ez Lisboan. Oiloak karaka non, arrautza bertan errun. *(Irakurriz)* "Gure errege jaunak, Luís Gonçalvesi eta Martim Gonçalvesi eta baita Lagundiaren aitei ere mesede egiteagatik, ongi deritzo lau urte hauetan ez ezkontzeari eta beraiekin ohaide izateari." *(Martim da Câmarak barre egiten du.)* Pozten naiz zu pozik ikusteaz, Martim. Zure lekuan jarrita, zuhurragoa nintzateke agian. Ongi deritzozu nire izena eta zure izena, eta Jesusen Lagundiarena, lohian herrestan ibiltzeari?

Martim da Câmara

Barkatu, anaia maitea. Ezin dut beti zure neurritasuna eta zuhurtzia konpartitu.

Luís da Câmara

Bata zein bestea egoki asko beharko zenituzkeenak zure onerako.

Martim da Câmara

Barkamenak berriro. Ederki asko dakizu estimu eta maitasun handitan zaitudala. Ez dizut gure aita zenari baino gutxiago zor. Berarengandik jaso nuen bizia, zuregandik aberastasuna, nire kargu hau Gortean, erreinuan dudan agintea. Zure bihotzaren handitasunari esker ahaztu ahal izaten dut batzuetan adinean daukagun aldea, eta noraino handiagoa den zure jakinduria nire ezjakintasunaren ondoan. Zureganako dudan eta zor dizudan mirespena, hori ez dut sekula ahazten.

Luís da Câmara

Ez dizut kargu hartu nahi, Martim. Daukagun adinaz hitz egin duzunez, eta gure artean daukagun adin tartean, horixe dela kezkatzen nauena esan nahi dizut. Zaharra naiz, ez dut

askoz gehiago bizitzerik espero, baina gustatuko litzaidake, Jaungoikoak bere altzora deitzeko gura duenean, zu gobernu honetan sendo errotuta uztea.

Martim da Câmara

Erregearen konfiantza daukat.

Luís da Câmara

Badaukazu. Eta ezin-ikusi ugari Gortean. Begiak ireki, anaia, itxita badituzu. Hiltzen naizen egunean, edo hori gertatu baino lehen erregeak beste konfessore bat hobesten badu, zure posizioa arrisku handian egongo da. Ederki dakizu erreginak ez digula estimu handirik. Ahaztu al dituzu hartu behar izan genituen nekeak erregearen alboko konfessorea izateko beste ordena bateko aita, domingotar bat edo agustindar bat, ez jartzea lortzeko? Kardinal-infantearen influentzia gure alde eduki ezean, Jesusen Lagundia zokoratuta egongo litzateke dagoeneko, bere lorpen handienetako bat galduz kasu horretan: erregearen konfessore eta aholkularia izatea. (*Isilunea.*) Eta ni konfessore izango ez banintz zu ez zinateke Estatu idazkaria.

Martim da Câmara

Esaten duzun horrek zer pentsatu ematen dit ea, azkenean, Coimbran zabaldu zen panfletoa idatzi edo idaztea agindu zuen eskua ez ote den goi-goikoagoa izango. Gure Errege jaunaren amonak ere erregea ezkontzaren bidetik ateratzea leporatzen digu niri, zuri eta baita Lagundiari ere. Eta Jaungoikoak badaki hori ez dela egia.

Luís da Câmara

Hala moduzko egia izango da. Erregeak ez du ezkondu nahi, Lagundiari ez zaio komeni erregea azkar ezkontzea. Erregea ezkondata, zeinek daki, gutxi bada ere, guri kasu egiten jarraituko duen?

Martim da Câmara

D. Catarina izan da orduan?

Luís da Câmara

Ez naiz hain urrutira joango, anaia. Erregearen amonakez du sekulan zer pentsatzen duen ezkutatu, ez luke soldatapeko eskurik behar hori paper zikin horietan moldatzeko.

Martim da Câmara

Herria gure kontra jartzeko gogoia izan zezakeen.

Luís da Câmara

Agian. Kontuz ibili beharko dugu. Izan ere, guztiekin fidatzen denak bezain okerra egiten du guztiari susmo txarra hartzen dionak.

Martim da Câmara

Egunen batean erregea ezkondu egin beharko da.

Luís da Câmara

Hala izango da, erresumaren zorionerako. Baina gauza bakoitzak bere garaia du.

Martim da Câmara

Askoz azkarrago ezkondu izan dira beste errege batzuk.

Luís da Câmara

Erregea ezkonduko da, berriro esaten dizut, kezkarik ez izan horrekin.

Martim da Câmara

Kezkatuta zaude, Aita Luís Gonçalves da Câmara.

Luís da Câmara

Ez dira nire kezkek zureak baino gehiago, Martim.

Martim da Câmara

Asko dira orduan. Ederki dakizu, nik bezala, gaitza ez dela erregea orain arte ezkondu ez izatea. Ze adina du erregeak? Hamasei urte. Halako egun batean erregea esnatu eta esango du: emaztegaia hautatu nahi dut. Eta Portugalek bere erregina izango du.

Luís da Câmara

Jaungoikoak nahi dezala esaten duzun bezain erraza izatea dena.

Martim da Câmara

Nirekin bat egiteko gero eta gertuago zaudela ikusten dut. Eta falta zaizkizun pausoak emateko ausardia izango ez duzunez, neuk esango dizut erregea ezkontzea edo ez ezkontzea ez dela kezkatzen zaituen kontua.

Luís da Câmara

Zein da, bada, orduan?

Martim da Câmara

Aita Luís Gonçalves da Câmara, nik agertu beharko dizkizut zure mingainak arbuiatzen dituen hitzak? Portugalgo erregina izan izango dugu agian, espero ez dudana da erregina horrek erregearenak izan daitezkeen seme-alabak ematea. (*Isilunea.*) Barkatu, eskandalua sortzen badizut.

Luís da Câmara

Konfessore batek ez du inoiz eskandalurik hartzen. Badakizu zer esan duzun?

Martin da Câmara

Eta zuri, anaia maitea, ondo iruditzen zaizu ezkutaketan jolas honetan ibiltzea?

Luís da Câmara

Ez zaitut ulertzen.

Martim da Câmara

Ulertzen duzu, ulertzen duzu. Ni Estatu idazkaria izanik eta, zure moduan, Jesusen Lagundiko partaide, ez ditut erresumaren arazoak eta interesak aipatuko aitortzan entzundako sekretuak ezagutu ahal izateko. Gauza bat soilik galdetu nahi dizut, ea ziur zauden emakume baten, emaztea izan edo ohelagun izan, eta erregearen arteko haragizko harreman batetik umerik jaiotzerik al dagoen? Eta baita ere galdetzen dizut ea ziur zauden horrelako haragizko harreman hori egiterik posible den.

Luís da Câmara

Zure aldetik, asko galdetzea da, Estatu idazkari jauna.

Martim da Câmara

Eta zurea, gutxi erantzutea, erregearen konfessore jauna.

Luís da Câmara

Zer nahi duzu esatea? Nik neuk nire buruari egindako galderak dira.

Martim da Câmara

Eta zeintzuk dira berak ematen dizkizu erantzunak?

Luís da Câmara

Ez entzuten saiatu naiz.

Martim da Câmara

Nahikoa zait hori.

Luís da Câmara

Mirariren bat egingo du Jaungoikoak erresuma salbatzeko.

Martim da Câmara

Handia da, zalantzarik gabe, Jaungoikoaren ahalmena, gizonak ezpatari heldu ahal izateko, ordea, eskuak eman behar izan zizkion Jaungoikoak berak. Eskuak, baina, gizonarekin jaiotzen dira, ez zaizkio gero etortzen. Mirari hori ezin du Jaungoikoak egin.

Luís da Câmara

Tentuz ibili mingaina, Martim Gonçalves. Jaungoikoari ezer ez zaio ezinezko.

Martim da Câmara

Berak egindako obra bera zuzentzea izan ezik.

Luís da Câmara

Isildu zaitetz.

Martim da Câmara

Bai, anaia maitea.

Luís da Câmara

Ofizio Santuak belarriak hemen edukiz gero, ezta zuk zeuk ere ezin izango zenuke prozesua ekidin. (*Isilunea.*) Zer berri datoz Lisboatik?

Martim da Câmara

Ez hobeagoak, ez okerragoak. Ez dirudi izurriteak atzera egiteko asmorik duenik, eta orain apirileko aurreneko bero hauekin beldur nago ez ote den berrindartuko. Berrogeita hamar mila lagun hil dira dagoeneko, jende xehea jeneralean.

Luís da Câmara

Gure Jaunak har ditzala haien arimak eta zain gaitzala kutsatzetik.

Martim da Câmara

Halabiz. Hemen, Almeirimen, aireak freskoak eta garbiak dira, kiratsa ez da hona iritsiko. Lisboa itxita dago, txingarretan dagoen galdaratzar modukoa da. Eta erregai faltan, beren baitan itzaltzen dira txingarrak.

Luís da Câmara

Errautsak geratzen dira.

Martim da Câmara

Errautsak geratzen dira. (*Isilunea.*) Bihar goizean ehizara joango da erregea.

Luís da Câmara

Ehiztari dotorea da erregea, eta porrokatua. Erresuma osoan ez dago bera bezalakorik.

Martim da Câmara

Gaur, laino zegoen goiza. Horrelako goizak dira erregeak gogokoen dituenak. Eta bere plazer handiena, itsu-itsuan zaldiz ibiltzea.

Luís da Câmara

Bai, goiz lainotsuak.

Bigarren eszena

Garai bera, leku berbera. D. Henrique, kardinal-infantea, D. Sebastiãoren osaba, inkisidore nagusia; D. Catarina de Áustria, D. Sebastiãoren amona, D. João III.aren alarguna.

Kardinala

Duela zenbat urte entzuten dizut gobernatzeaz nekatuta zaudela? Gorteak ere aspertzen zaitu orain? Ez zara bakarria gortez nazkatuta dagoena. Eta erregearen uste ona galdu izatea, ez da hori gaurko edo atzoko kontua, nik dakidala. Laburbilduz, geratzen zaizkizun egunak Gaztelan emateko asmo horretaz konbentzituko nauen arrazoirik ez didazu emango.

D. Catarina

Ez naiz erresumaren gobernuaz kexatzen. Horiek higuin izan ditudan ardurak izan dira beti, axola ez zaizkidanak dagoeneko. Gorteak aspertzen nauela, egia da. Dena dela, esaten duzun moduan, ez naiz bakarria. Erregearen uste ona galtzeari dagokionez, ez dut uste berarekin ditudan desadostasunak zeuk dituzunak baino munta handiagokoak izango direnik.

Kardinala

Zergatik, orduan, Portugaldik alde egiteko gogo hori.

D. Catarina

Zer egin behar dut nik hemen? Erregeak ez nau entzuten.

Kardinala

Erregeak ez du inor entzuten.

D. Catarina

Câmara anaiak entzuten ditu, zuk jarri zenion konfesoarea, eta konfesoareak berak gero gorteko ateak eta erresumako sekretuak ireki zizkion Estatu idazkaria.

Kardinala

Nahiago nuke esaten duzun moduan izango balitz. Zure bilobak, gure errege jaunak, Câmara anaiengandik estimatzen duena da gobernuaren zama bere gainetik kentzea. Besterik ez.

Begira Estatu Kontseiluan zer gertatzen den. Erregeak zu ez entzuteaz kexatzen zara. Eta nik, zer esan behar dut? Ni, zu bezala, erresumaren erregeordea izandakoa, ni kardinal eta inkisidore nagusia, ni Erregearen osaba eta bere zaintzailea adinez txikia zenean? Zure bilobak askoz arreta handiagoz entzungo die bere ingurukoei eta kutunei niri, zuri eta Câmara anaiei, denak batera, baino. Beldur naiz...

D. Catarina

Zeren beldur zara?

Kardinala

Beldur naiz, erresuma hartzen ari den bidetik, ez ote dugun oraindik galbidean estropezuka gautxori moduan ikusi beharko. Orduan ikusiko da zer nolako zaindarien, egiazkoak edo sasikoak, helduko dioten eskutik eta nora eramango duten.

D. Catarina

Erru horiengatik ez dut nik erantzun beharko.

Kardinala

Zuk zeuk esan duzu. Zer esana asko ematen du erregea ezkonduko ala ez ezkonduko, edota erregea den ezkondu nahi ez duena ala uzten ez dioten...

D. Catarina

Ezkontza hori gerta dadin egin ditudan ahaleginen lekuko zuzena zara.

Kardinala

Egia da. Eta estimatzen dut zure ardura. Baina ez dizut ezkutatu behar Portugal eta Gaztela hurbiltzeko zure temaren irmotasuna ez dudala gogoko.

D. Catarina

Beti pentsatu izan dut modu horretan hobeto defendatuko zirela bi erresumen interesak.

Kardinala

Zurea ala Felipe erregearen iritzia izan, ez ahaztu Portugal buztinezko ontzia dela. Ez zaio komeni burdinazko ontzia den Gaztela aldera gehiegi jotzea. Ezagutzen duzu esaera zaharra...

D. Catarina

Ezagutzen dut. Baina, aldi berean, oso ondo dakit ahulari asko komeni zaiola babes emango dion handi baten indarraren arrimura jotzea, handien bihozberatasunik onura lortu nahi duten txikiak egiten ohi duten modu berean beti ere.

Kardinala

Inoiz izateari utzi ez diozun gaztelar harroaren moduan hitz egiten duzu. Duela zenbat mende da Portugal erresuma independentea eta burujabea? Menderatuta ikusi nahi duzu orain?

D. Catarina

Ikusten dudanez, nik esandako hitzen zentzua nahastu egiten duzu. Ez naiz Portugal Gaztelaren mende jartzeaz ari. Ahula bere ahulezia onartzeaz ari naiz, bai, eta une zailtan nork defendatuko zaituen bilatzeko zuhurtziaz jokatzeko beharraz. Beranduegi izan baino lehen.

Kardinala

Portugalek ez du inoren beharrik bere burua defendatzeko, eta gainera ez da erresuma hau bakarrik. Afrika eta India ere bada, eta Brasil.

D. Catarina

Afrikak, Indiak eta Brasilek daukaten nagusia gaur Portugalen agintzen duena da. Eta horrela izaten jarraituko du beste agintari bat egonez gero ere.

Kardinala

Kezkatzekoak dira zure hitz horiek.

D. Catarina

Gerta daitekeenaz ari naiz, ez desio dudanez. Zure hitzetatik sumatzen dudanaren kontra, nire borondate irmoa da Portugalek bere independentzia mantentzea. Baina, egunen batean galtzen badu, ez da India izango berreskuratzen laguntzera etorriko zaiona.

Kardinala

Arrazoia duzu. Mundua mundu denetik, inoiz ez da ikusi menperatua menperatzailearen defentsan joatea. (*Isilunea.*) Bion nahiak batu egin beharko genituzke. (*Isilunea.*) Hala ere,

ezin ditut kezka batzuk burutik kendu. Egia da erregea ezkontzearen nahia adierazten dugula biok, herriaren on-beharrez eta tronu eta dinastiaren iraunkortasuna bermatze aldera, baina azken puntu honi buruz, ordea, ez nago hain ziur hori zure benetako asmoa denik.

D. Catarina

Oso mesfidantza handiz hartzen dituzu nire hitzak, Kardinal Jauna.

Kardinala

Gaztelako erregearen izeba zara.

D. Catarina

Gaztelau harroa, esan duzu.

Kardinala

Gaztelaua, eta kito.

D. Catarina

Bederatzi seme-alaba eman nizkion nire senar eta jaunari, eta portugaldarrak jaio ziren seme-alaba horiek guztiak.

Kardinala

Leinu eskasa behar zuen, horietako inor bizirik ez irauteko.

D. Catarina

Iraindu egiten nauzu, Kardinal Jauna.

Kardinala

Kardinal batek sekulan ez du erregina bat irainduko. Jaungoikoak agintzen dit garbi hitz egiteko. Austria etxeko odolak ez dio batere onik ekarri Portugalari.

D. Catarina

Zure ministerioari dagokion errespetua zor dizut. Begiratu zuk ea niri zerbait zor didazun.

Kardinala

Andere, zaren emakume horri barkamena eskatzen diot nire hitz zakar horiengatik. Baina erreginak entzun beharko ditu eta egiatik dutenarekin etsi.

D. Catarina

Emakumea eta erregina, infanteak eman nituen Portugalgo errege-etxeari. Egin behar nuena egin nuen.

Kardinala

Denak hil ziren.

D. Catarina

Leinu beretik dator erregea, nire biloba. Austria etxekoen odolekoa izatea ez da galdu, beraz.

Kardinala

Jaungoikoak haren esku utzitako eginbeharrak ahaztu egiten ditu zure bilobak.

D. Catarina

Zure ardurapean egon da bere heziketa.

Kardinala

Herri bat gobernatzeko hezi nuen, ez denbora ehizaldietan alferrik galtzeko. Jaungoikoaren eta haren hitzaren beldurrean hezi nuen, ez atsegin dituen erlijioaren neurrigabekeri horietarako, bere errege-karguak behar ez dituenak. Eskarmentuz jantziagoak eta adinez zaharragoak direnen aholkuak entzuteko hezi nuen, ez ganorabakoez inguratuta ibiltzeko, gobernatzetik aldentzen diotenak eta Portugalentzat inongo onurarik ekarriko ez duten abenturetan sartzeko zirikatzen diotenak.

D. Catarina

Ez duzu, beraz, ni gaitzetsi behar. Austriarrena izan da, zure esanaren arabera, odol gaiztoa. Zer nahi duzu nire bilobarengan eta zugar dagoen Avis dinastiaren odolaz nik pentsatzea?

Kardinala

Andere, ez dezagun gure burua aurpegiratze gehiagorekin gaztigatu.

D. Catarina

Zuk hasitako bidetik jarraitu dut nik, oraingo hori ere jarrai dezaket, zuk nahi izanez gero.

Kardinala

Gerta daitekeenari aurre egiteko ez baditugu garaiz neurriak hartzen, susmoa dut garai makurrak ezagutuko dituela Portugalek. Zu nire alde egotea gustatuko litzaidake, ez erresumaren etsaien alde.

D. Catarina

Lasaitu zaitez, ez nauzu beraiekin ikusiko. (*Isilunea.*) Batek daki beldur dituzun zorigaitzak gertatu baino lehen ez ote garen hilko? Jaungoikoak aginduko du. Erresumaren zoria ez dago ez nire ez zure esku. Portugalen badago errege bat.

Kardinala

Badu.

D. Catarina

Antza, ez duzu on-beharrez esaten.

Kardinala

Neuri buruari galdetzen diot ea nork gobernatzen duen benetan erresuma. D. Sebastião erregeak, edo lausenguz atzetik eramaten dutenen zentzugabekeriak. Ala erregea bera da itsu eta galduta dabil?

D. Catarina

Erregeak ez dezala orain esandakoaren berri izan.

Kardinala

Zuk esaten badiozu jakingo du, eta zuk esan diozula jakingo dut nik.

D. Catarina

Zaharra naiz, inkisidore nagusi jauna, ez eroa.

Kardinal

Zaharrak gara biak. Agian eroak gara denok.

Catarina

Izurriteak jarraitzen du Lisboan?

Kardinala

Jarraitzen du.

Hirugarren eszena

Garai bera, leku berbera. Gelaurrea. Kapareak, ezkutariak, fraideak, zerbitzariak, morroiak. Mugimendu pausatuak, erlijio kutsuzko giroa, bildua. 1. Kaparea, 2. Kaparea, Diogo do Couto.

1. Kaparea

Hor dago Diogo do Couto, Indiatik etorria, eta erregearekin hitz egiteko eskatuta dauka dagoeneko. Bertan ezagutu zenuen, oroitzapen ona duzu?

2. Kaparea

Goan ezagutu nuen.

1. Kaparea

Erantzuteko moduagatik, estimu handian ez duzula esango zuen edozeinek. Oker nago?

2. Kaparea

Bai eta ez.

1. Kaparea

Egidazu hobeto esplikatzeke mesedea.

2. Kaparea

Diogo do Couto gizon suharra da; halako batean, egiatzat hartzen dituenak besterik ez esateko zin egina zuela ematen du, nahiz eta mina sortu bere ondoan dagoen lagunaren belarrietan. (*Beste tonu batean.*) Ez da ni egiarekin borrokan nagoenik. Egia zintzoen ikurra da, doilorrek baino ez dute gezurrik esaten, eta mairuek eta judu guztiek; baina jende zintzo eta odol garbikoen artekoa hizketa biziata egongo da tokiko komenientziak eta uneko interesak kontutan izaten ez baditu. Eta Diogo do Coutok ez ditu ez komenintziak errespetatzen ez interesak kontutan hartzen.

1. Kaparea

Soldadu ona da zure ustez?

2. Kaparea

Nirekin egon zen erregearen armadan, ez dut ezer esateko. Armekin trebea da, eta letratua ere bai.

1. Kaparea

Zer kontuen berri eman nahiko dizkio erregeari?

2. Kaparea

Ez du aski izango Indian egindako bere zerbitzuei dagokien ordainketa eskatzearekin. Izaeraz ez bada aldatu, iltze eta kanela baino kexak eta salaketak ekarri ditu gehiago. Ez zioten eman beharreko emango. India hondamendira doala esango du, gobernu txarren erruaz hankaz gora dagoela, ez erregeordeei ez kapitainei gupidarik erakutsi gabe.

1. Kaparea

Ez dira horiek erregeak entzuteko gogoko dituen mezuak. Ordu gaiztoan etorri da Diogo do Cuoto.

2. Kaparea

India kontrolpean dago, bere kabuz egiten du aurrera, ederki gainera, erregearen zerbitzura eta erresumaren mesederako. Orain beste fronteak ditu ate joka Portugalek.

1. Kaparea

Eta askoz gertuago. Lantza baten puntarekin iristen zara Marokora.

2. Kaparea

Erregeak eramango du lantza hori.

1. Kaparea

Asko itxaron egin beharko du orduan Diogo de Coutok.

2. Kaparea

Bere txanda itxaron beharko du, kontua ez baita Cascais-en itsasontzitik lehorreratu, zaldian lauhazkan Almeirimera zuzenean etorri, jauregira sartu gero eta, zain dauden beste guztiak baino lehen, erregeak audientzia ematea. Indiak ez du presarik. Nor gehiago etorri da, ba al dakizu?

1. Kaparea

Antonio Ferrão etorri da. Eta baita Antonio Cabral eta Duarte de Abreu ere etorri direla entzun dut. (*Diogo do Couto sartzen da.*) Hor dago gure gizona.

Diogo do Couto

(*2. Kapareari.*) Asko pozten naiz une eta egokiera honetan zu ikustez. Nik egindako lan eta zerbitzuen zu lekukoa izanik, ziur nago orain ongi hartua izango naizela eta arretaz entzungo nautela. Beste faborerik ez dut eskatzen, egia esatea eta Indian zerbitzatutako hamaika urteren kontu ematea faboreak badira.

2. Kaparea

Zugan, aipatzen dituzun urte horiek baino beste diferentziarik ez dut ikusten nik. Hemen zutaz galdetu didan Berorren Mesedeari ari nintzaion esaten zer nolako soldadu trebea zaren, eta letratua.

Diogo do Couto

Zorionez, Portugal ez dago soldadu trebeen eta letratu trebeen faltan, zure zerbitzari hau baino hobegoak denak. Benignitatea faltako zaio, ordea, batzuen sakrifizioen eta guztien talentuen aitortza egin beharko duenari.

1. Kaparea

Ikusten dudanez, bizirik dago oraindik ere garaian ederki merezitako erreputazioa.

Diogo do Couto

Zer erreputazio?

1. Kaparea

Ahoan bilorik gabe hitz egitearena.

Diogo do Couto

(*2. Kapareari*) Baita nire akatsez ere ari zen Berorren Mesedea?

2. Kaparea

Baita ere, akatsak baderitzezu.

Diogo do Couto

Hainbeste alditan dira hori esan didatenak, ezen bidaia honetako nire sorpresarik handiena litzateke Berorren Mesedea horretan ados ez egotea. Azkenean, gauza asko esaten dira urrun edo bizkarra emanda gaudenean. Horrelakoxeak dira hitzak: okerra esateko zuzenak, hala nola zuzena esateko okerrak.

2. Kaparea

Hizketa atsegina duzu, soldaduarena baino eskolatu zoliarena iruditzen zaidana.

Diogo do Couto

Oso aldarte makalduta eduki behar du Gorteak horren gauza txikiarekin kontentu hartzen badu. Mozanbiketik nirekin itzuli zen Luís Vazek jakingo zuen horren arrazoiak ederki azaltzen.

1. Kaparea

Nor da Luís Vaz?

Diogo do Couto

Benetan galdetzen duzu?

1. Kaparea

Inoiz ez dut izen hori entzun.

Diogo do Couto

Luís Vaz de Camões, aitoren semea.

1. Kaparea

Alafede, ez nekien.

Diogo do Couto

Eta zuk, Indian egondakoa zarelarik?

2. Kaparea

Luís Vaz? Luís Vaz de Camões? Hutsaren hurrengoa daukat nik burua, beti esaten dut. (*Isilunea*) Ez dut ezer gogoratzen gizon horretaz.

Diogo do Couto

Hori egia galanta, askotan gertatzen da, boteretsuen izena, tituluak, gertaera eta dohaintzako baino ez dugula memoria. Horrela ulertzen da zuek Luís Vaz-i buruz ezer ez jakitea. Poeta da, Portugalen dagoen handiena, bere irudimena baino beste ondasunik ez duena. *(Ahots goragoan)* Jaun-andreak, nork, zuen artean, kapareak, lekaideak, zerbitzariak, ganberako laguntzaileak eta hemen zaudeten beste guztiak, nork ezagutzen du Luís de Camões? *(Erabateko isiltasuna)*

Laugarren eszena

Lisboa, Mouraria, Luís de Camões-en etxea, 1570eko maiatzaren hasiera. Ana de Sá, Diogo do Couto, Luís de Camões.

Diogo do Couto

(Kanpotik deika) Luís Vaz etxe honetan bizi al da?

Ana de Sá

(Atea irekiz) Honetan bertan. Nor zara zu?

Diogo do Couto

Diogo do Couto, zure semearen adiskide eta laguna, zure esanetara.

Ana de Sá

Diogo do Couto zara zu? Sartu. Eta ez begiratu etxearen pobrezia, emakume zahar eta alargun batena baita. Eta, horrela esatea ez bada txartzat hartzen, duela bi astetik hona besterik ez bada ere, ama berriro.

Diogo do Couto

Emakume, palazioetan ez bizitzen eskarmentu handia duen gizonarekin ari zara etxe pobreez hizketan, edota noizbait bertan bizi izan banaiz ez da sala edo gela printzipaletan izan. Zure semearen modura.

Ana de Sá

Eser zaitetz, eser zaitetz. Utzidazu nire Luís semearen lagunaren aurpegia ondo ikusten.

Diogo do Couto

Beste lagun batzuk ere baditu.

Ana de Sá

Baina inor zu baino hobeagorik. *(Beste tonuan)* Hala ere, ez dut modu bidegabean hitz egin behar eskuzabaltasun handiz jokatu duten horiekin guztiekin semea bere amaren besoetara itzuli ahal izateko hamazazpi urte pasatu ondoren. Hamazazpi urte egon naiz hemen haren itzuleraren zain, berririk gabe, edo oso gutxirekin, hilik egongo ote zen pentsatuz, edo bertan

geratu ote zen, urrutiko lurralde horietan sekulan inolako onurarik ekarri ez digutenak, ezta ekarriko ere.

Diogo do Couto

Ez duzu India maite?

Ana de Sá

Zer da India?

Diogo do Couto

Emakume, hau galdera egiten didazuna. Lehorreratu nintzenean, ez nuen uste nik horren kontu korapilatsuren aurrean inork jarriko ninduenik Lisboan. Zer erantzun eman behar dizut?

Ana de Sá

Zuk jakingo duzu.

Diogo do Couto

India orain zer den dakit nik. Handik datoz espeziak eta zeta, erresumara iristen diren aberastasun horiek guztiak.

Ana de Sá

Indiaz hori baino askoz gehiago dakizu, egiazki.

Diogo do Couto

Arrazoia duzu. India izango da, edo bada dagoeneko nire ustean, Portugalek jasango duen gaixotasuna. Jaungoikoak gura dezala hilgarria ez izatea.

Ana de Sá

Diogo do Couto jauna, irakurtzen ez dakit nik. Luís Vazek paper asko ekarri zituen hor...

Diogo do Couto

Paper bikainak, ezagutzen ditut.

Ana de Sá

Hor esertzen da egunero orraztera, ahoz goran irakurriz. Esaten dituenetako asko ulertzeko ere ez naiz gauza, jainkoez eta jainkosez etengabeko jardunean aritzen da, lur eta itsaso ezezagunen izenez, kontu miragarriez, inoiz ez ikusitako gauzez. Nor litzateke gai, Mouraria auzo honetan, mundua horrela imajinatzeko?

Diogo do Couto

Munduak askoz gauza gehiago dauka ikusteko eta miresteko.

Ana de Sá

Duela egun batzuk, ulergarriago litzatekeen pasarteren bat niri irakurtzeko eskatu nion, nire entendimenduak hobeto adituko zuena, eta halako keinu serio batez niri begira geratu zen; gero, orrien artean bilatu eta Indiara abiatu ziren ontzien irteeran egon zen agurearen agurra irakurri zidan. Gogoan duzu?

Diogo do Cuoto

Neure izena gogoratzen dudan moduan. O! Agintzearen distira. O! Fama deitzen diogun handikeria horren kodizia hutsala...

Ana de Sá

Bertso horiek Indian idatzi zituen Luís de Vazek, ezta?

Diogo do Couto

Hala da.

Ana de Sá

Orduan, India Portugalek jasango duen gaixotasuna izango dela esaten duzunean, nire semeak oktaba haietan esaten zuena beste modu batera adierazten ari zara. Hala ulertzen dut nik.

Diogo do Cuoto

Azkarra zara.

Ana de Sá

Trufa egiten diozu atso gajo ezjakin honi. Astia izan dut nire semea gogoan izateko, lurralde horietan eta bidaia horietan. Hamazazpi urtez pentsamendutan arituta pentsamendu asko dira. Eskerrak ematen dizkizut berriro, Diogo do Couto jauna, nire ondora ekartzeagatik

Diogo do Couto

Nola dago Luís Vaz?

Ana de Sá

Nola erantzun horri? Aldatuta ikusten dut, nire semea da baina beste pertsona bat ere bada. Zein hondartzan edo itsasoan geratu zen hemendik abiatu zen mutil adoretsua, zer estualdik eta atsekabek bilakatu zuten horren malenkoniatsu, zer miseriak oraingo pobrezia hau baino jasangaitzagoak?

Diogo do Couto

Indian...

Ana de Sá

Badago handik aberats itzuli dena.

Diogo do Couto

Luís Vaz aberats ez itzultzea, hori da zure kexa?

Ana de Sá

Baita etsiak hartuta itzultzea ere, eta bere etsia goxatzea nire esku ez egotea. Bere amak poza ezin ematea, baten batek eman beharko badio.

Diogo do Couto

Ana de Sá anderea...

Ana de Sá

Nire izena ezagutzen duzu? Esana izango dizu berak. Baina ni nire semearen ama besterik ez naiz.

Diogo do Couto

Mozambiketik erresumara, bost hilabetez itsasoan ibili ginen. Pentsa zenbat denbora izan genuen Luís Vazek eta biok gure bizitzaz hizketan aritzeko.

Ana de Sá

Nitaz hitz egin zizun, nire semeak?

Diogo do Couto

Hitz egin zidan.

Ana de Sá

Eta zer esaten zuen?

Diogo do Couto

Ez nuke jakingo orain hitzez hitz errepikatzea. Baina asko maite zaituela antzeman nion.

Ana de Sá

Horrela izango da. Bidezkoa eta berezkoa du semeak bere ama maitatzea. Hala ere, izaera arraroa du Luís Vazek, edo horrela ekarri du lurralde haietatik. Pozarren joan zen ene Luís, isilik bizi da gaur, eztarrian burdinazko lepoko bat lotuta izango balu bezala, ia ez dit ezer esaten.

Diogo do Couto

Patziencia izan. Urguilua duen gizona da Luís Vaz. Idatzi zituen paperen balioaz jakitun da, haren bertsoena, haren poema handiarena; beste motako ondasunak ere ekarri nahiko zituen, baina esku hutsik etorri da. Badakizu nola aurkitu nuen Mozambiken, baten edo bestearen laguntzari esker bizitzen...

Ana de Sá

Eta erresumara itzuli ahal izateko bere lagunak, bidaiaz gain, berrehun kruzadotako zorra ordaindu zioten...

Diogo do Couto

Horren berri al duzu?

Ana da Sá

Urguilua du nire semeak, baina ez hori ezkutatzeko nahikoa. Hain zuzen, urguiluak bultzatuta esango zidan agian.

Diogo do Couto

Iragandako egun zaharraren ondoren egun berria dator. Luís Vazek bere poemak argitaratuko ditu, gortearen babesa izango du, erregearen faborea. Erresuma osoan ez dago poeta handiagorik.

Ana de Sá

Hala izan dadila. Hainbeste arrisku gaindituta, hain urrutitik itzuli eta gero, egunero familia osoak hiltzen dituen izurrite honek eramanda amaitzea, zeru altuan justiziarik ez dagoelako litzateke hori hori. (*Pasatzen den ezkila hotsa entzuten da*)

Diogo do Couto

Justizia...

Ana de Sá

Orain, Ama Birginari egiten diot otoitza egunero eta esaten diot: gizon-emakume guztion Ama, nire semea hiltzen bada, bizitza ematen badidazu bera hiltzen ikusteko, ahaztu Ana de Sá, sekulan ez bainaiz berriro zure aurrean belaunikatuko.

Diogo do Couto

Lasaitu zaitez, andere.

Ana de Sá

Diogo do Couto jauna, nik beste seme bat izango banu berarekin askatuko nituzke bihotzean mina sortzen dizkidaten kontu hauek. Luís Vazen anaia modukoa zara zu. Eskertu egiten dizut etortzea eta zurekin askatu ahal izatea.

Diogo do Couto

Nora joan da bera?

Ana de Sá

Santo Domingora joango zela esan du, fraideekin hitz egitera.

Diogo do Couto

Berandu etortzekoa bada, beste egun batean itzuliko naiz.

Ana de Sá

Zeinek daki beste egun bat egongo ote den? Hobe duzu itxarotea. *(Belarría zorrotuz)* Zure nahia bete da. Bere pausuak entzuten ditut.

Diogo do Couto

Ez dut ezer entzuten.

Ana de Sá

Diogo do Couto jauna, hamazazpi urtez semearen zain egoteak munduko belarririk zorrotzenak eman dizkit. *(Altxa eta atea irekitzen du, Luís de Camões atalasean dago)*

Luís de Camões

Noiz iritsiko da eguna, ama maitea, atea neuk irekiko dudala zuk ireki baino lehen.

Ana de Sá

Airean hegan etorriko bazina, aingeruen moduan, ez zintudan entzungo agian. Diogo do Couto dago hemen.

Luís de Camões

Diogo.

Diogo do Couto

Luís Vaz. *(Besarkatu egiten dira luze)* Gortetik iritsi naiz gaur, zure berri izatearren etorri naiz. Itxaron bitartean, Ana de Sá anderearekin hizketan aritu naiz. Probetxuzko solasa izan da.

Ana de Sá

Lausengaria da zure laguna.

Luís de Camões

Denetarik esan daiteke Diogo do Coutori buruz, baina ez lausengaria denik.

Diogo do Couto

Egia lausengaria denean ez zaio egiari errua egotzi behar.

Ana de Sá

Elkar hartuta zaudete zuek biak ni lotsarazteko. Hitz egin ezazue, afariaz arduratuko naiz bitartean. Luís, Diogo do Coutok zurekin afalduko du? Sardina egosiak baino ez ditugu gaur.

Diogo do Couto

Beste egun batean etorriko naiz denbora gehiagorekin, eta sardinak izan daitezke. Baina gaur ez. Bidaia egin genuen itsasontziaren kapitainarekin egon behar dut.

Ana de Sá

Dagoena dagoela, zure platera mahai gainean egongo da beti, Diogo do Couto jauna.

Diogo do Couto

Eskuan muin egiten dizut, andere. (*Ana de Sá ateratzen da*) Zorionekoa zara, Luís de Vaz, hau bezalako ama edukitzeagatik.

Luís de Camões

Ez dut gogoratzen horrela zenik Indiara abiatu nintzenean. Edo begirik ez nuen nik orduan bera horrela ikusteko. (*Irriño eginez*) Egia da, hala ere, ordurako honen falta banuela.

Diogo do Couto

Nola moldatzen zara?

Luís de Camões

Hala moduz. Ez nuen ezer ekarri eta ez dudan irabazpidetik jaten dut, hemen utzi nuen ohean egiten dut lo, Lisboatik paseatzen dut, fraideekin hitz egiten dut. Mourarian ezagutzen nautenek begiko adabakiagatik ezagutzen naute. Baina nire ondoan beste begibakar jarritz gero, inork ez du jakingo Luís de Camões nor den.

Diogo do Couto

Saminduraz diozu.

Luís de Camões

Ez pentsa. Izurriteak jota hiltzen ari den hirian oso axola gutxi du bizidunen saminak. Oraintxe bertan, Santo Domingon Joaõ da Silva fraideak esan dit bertako hilobietan berrogei, berrogeita hamar gorpu botatzen dituztela egunero. Hildakoak eramaten dituen orgaren ezkila entzuten duzu? Horra hor non bukatzen diren Luís de Camõesen goibeltasunak.

Diogo do Couto

Idazten duzu?

Luís de Camões

Orraztu, adabatzaille lana egiten dut.

Diogo do Couto

Eta bertso berriak?

Luís de Camões

Arrunkeriarri ihes egiten dion ezer ez. Nire baitan begiratu eta huts eta lehorra ikusten dut nire burua. Bidaian zehar, Lisboara iristerakoan etorria piztuko zitzaidala pentsatzen nuen. Hiria itxita ikusi, gaitzak atsekabetuta eta hildakoak nonahi topatzen dituzularik... Zertaz molda dezake poetak bere bertsoa?

Diogo do Couto

Izurrite garai honetaz, hain zuzen, agian...

Luís de Camões

Burutazio bitxia, hori.

Diogo do Couto

Gerrei buruz poetek bertso ederrak ontzen badituzte, zergatik ez dituzte apartak ondu behar izurriteen gainean.

Luís de Camões

Ez da ohikoa.

Diogo do Couto

Zuk egina duzu honezkero. Gogoratu oktaba haiek non marinelen hortzoi ustelaz hitz egiten duzula, eta haien kiratsaz, eta nola haragi bizitan zimeltzen ziren dagoeneko hilda egongo balira bezala. Izurritea da.

Luís de Camões

Gizon berezia zara, Diogo do Couto. Auskalo ez ote den hori bidezkoa eta kontatu behar dena, eta ez bihotzeko pozak eta arimako dotoreziak bakarrik.

Diogo do Couto

Zuk bakarrik egin dezakezu hori. Horrela nahiko bazenu...

Luís de Camões

Ez dut uste egingo dudarik. (*Tonua aldatuz*) Eta zu, zer egitera etorri zara Lisboaara? Seguruago egongo zinen Almeirimen, kiratsetik urrun.

Diogo do Couto

Esan dizut lehen. Itsasontziaren kapitainarekin hitz egin behar dut. Eta baita ere zu jakinaren gainean jarri nahi zintudan, luze jo gabe gortea Lisboaara etortzea espero da. Ez da biharko kontua izango, ez izurriteak bizirik iraun bitartean, baina adi egon erregearen itzulerari, eta gortera iritsia dela jakin bezain laster, bertara joan, zure obra eraman eta haren alde borrokatu.

Luís de Camões

Ez nago ohituta gortean dauden egiteko moduei. Gustatuko litzaidake zu bezalakoa izatea, jokaera guztiak onartzen eta errefusatzen dituzula aldi berean. Baina joango naiz. Nire liburua argitaratuta ikustea baino desio handiagorik ez daukat mundu honetan.

Diogo do Couto

Ohitura ez duzu, egia da. Eta jakin beharko zenuke, Indian tramiteak oraindik eta motelagoak baitira. Han, ile beltzekoa ate joka hasi eta ederki urdinduko zaio zain egon bitartean. Tramite bat bideratzeko, sarrerako banku luze horietako batean artean biloba esertzen den gizona aitondu egiten da irtenbidea ematen diotenerako. (*Tonua aldatuz*) Almeirimen aireak garbiak dira baina izurritea ere bertara zabaldu da.

Luís de Camões

Zer esan nahi duzu?

Diogo do Couto

Ez esan dudana baino gutxiago. Erregeak fraileak eta begikoak baino ez ditu inguruan nahi, beste aholkulariekin ez du ezer ikusi nahi, eta jainkoak badaki horiek ez direla onak. Bere

amets bakarra da Maroko konkistatzea, Turkoa menderatzea, Lur Santuak askatzea. Erreginak Gaztelaren alde egiten du, odolean darama, kardinalak kontra egiten dio; baina, egia esan, kardinalak zer nahi duen inork ez daki ziur. Indian geundenean ez genuen pentsatzen erresuma lema eta patroirik gabeko txalupa zenik.

Luís de Camões

Horren larria eta iluna al da hain denbora laburrean topatu duzun egoera?

Diogo do Couto

Ez didazu sinesten? Denborak esango du oker nagoen.

Luís de Camões

Eta erregea? Nolakoa da erregea? Indiara abiatu nintzenean jaiogabe zegoen oraindik.

Diogo do Couto

Erregea... Hamasei urteko gaztea da. Mendian ehizean ibitzea du gustuko, gogaikarria zaio erresuma gobernatzea, errege batek behar duena baino otoitz gehiago egiten du. Baina ausarta da. Esaten dutenez, gauza bakar bati dio beldurra, ezkontzeari. Berari ezkontzeaz hitz egitea heriotzaz hitz egitea bezalakoa zaio. Mutil mardula da, ile horikoa. Horixe duzu erregea. A, egia da. Erbi-ezpaina dauka.

Luís de Camões

Garratzak hartuta ikusten zaitu, benetan dizut.

Diogo do Couto

Luís de Vaz, Portugal ere gobernatzeko gauza ez den errege hau nola izan daiteke gai horrelako konkista amets handitsuari heltzeko? Egoera nahasian utzi dugu India gure atzetik, okerrago dago Portugal.

Luís de Camões

Errege hau... Hau da daukagun erregea, eta amesten dituen kontuak, bai, handitsuak dira, zuk esan moduan.

Diogo do Couto

Amets ederrenak begiak irekita egiten direnak dira, ez itsuan egindakoak. Barkaidazu, Luís Vaz.

Luís de Camões

Horren minberatsutzat hartzen nauzu? Saguaren aurrean hitz egin behar da katuaz.

Diogo do Couto

Eta eromenaz eroaren aurrean.

Luís de Camões

Horren sakona al da gaitza?

Diogo do Couto

Zuk zeuk ikusiko duzu gortera joaten zarenean.

Luís de Camões

Ikusiko dut.

Ana de Sá

(Sartzen da) Afaria prest dago. Afaltzera geratuko zara, Diogo o Couto jauna?

Diogo do Couto

Banoa. Berroren Mesedeak alde egiteko lizentzia ematen badit. Laster elkar ikusiko dugu, Luís Vaz. *(Ateratzen da)*

Ana de Sá

Gizon zuzen eta zintzoa da Diogo do Couto. Anaia balitz bezala zaindu beharko zenuke.

Luís de Camões

Anaiatzat daukat Diogo do Couto.

Ana de Sá

(Barrura joan eta berriro ateratzen da) Hemen daukazu afaria.

Luís de Camões

Eta zuk, amatxo maitea, ez duzu afalduko?

Ana de Sá

Hor barruan afaldu dut, zuek hizketan ari zineten bitartean.

Luís de Camões

Egia diozu?

Ana de Sá

Egia diot.

(Luís de Camõesek afaldu egiten du isilik. Ondoan, isilik eta zutik, Ana de Sá du lagun. Platera eramaten du gero. Ez da itzultzen. Luís de Camões pentsakor, altxa eta bere paperetan murgiltzen da, batzuk hartu eta gainetik irakurtzen ditu.)

Luís de Camões

(Enfasia progresiboki areagotuz irakurtzen du) Emaidazu amorru bat bizia eta durunditsua, / Baina ez xaramela trakets batena edo flauta zakarrarena, / Izan dadila adar ozen eta oldartsua, / Barrena garretan jarri eta aurpegiera koloreaz aldatzen duena; / Emaidazu ere irudiko eresi entzutetsua, / Martek lagun, zure aintzazko herriaren egitandien isla izango dena: / Unibertsoan zabaldu eta goratua izango dena, / bertso batean urtzerik balego halako miresmen gorena. *(Barne hizketan)* Eskaintza sartu beharko litzateke hemen... Eskaintza erregeari... *(Berrito irakurriz)* Eta zuek, Tajo ibaiko ninfak... *(Ahoz goran)* Diogo do Coutok susmo iluna hartzen dio guztiari, bere izaera da... Eginkizun handiak dira erregeak amesten dituen horiek... *(Irakurtzen berrito)* Eta zuek, Tajo ibaiko ninfak... *(Ahoz goran)* Bertso bat, hasteko, honekin ondo egokituko dena, bokatibo bat... *(Izurriteak hildakoen gurdiko ezquila entzuten hasten da)* Eta zu, o gerizpe irmo zintzoa... Bai, hauxe da... *(Mahaian eseri, luma, papera eta tinta eskuan hartu eta idazten hasten da. Ezkilaren soinua gero eta argiagoa da)* Eta zu, o gerizpe irmo zintzoa / Lusitaniako libertate zaharrarena / Eta kristandadearen zabalpenaren / benetako itzaropena... *(Gero eta tonu baxuagoan, ezkilaren soinua eta argia amatatzearekin batera)*

Bosgarren eszena

Gortea Lisboan. 1570ko ekaina, Jauregiko saloia. Fraide, kapare eta morroien ohiko joan-etorria. Kapareen artean, batzuk nabarmentzen ez diren arropak janzten dituzte; baina beste batzuk, aldiz, luxuzko jantziak luzitzen dituzte oraindik: aste gutxi batzuk baino ez dira pasa luxuari gaineko pragmatika argitaratu denetik.

3. Kaparea

Ebanjelio santuen izenean, benean dizut, pragmatika honek onura handiak ekarriko ditu. Zentzu onak gidatutako erabakia hartu du erregeak luxuzko oihal eta apaingarrietan egiten ziren gastuen gainean kobratzeko agindua ematean; arimak betiereko galbidetik eramango baitzituzten gehiegikeri horiek bestela, erresuma bera ere eramango ez bazuten.

Frailea

Egia santua da diozun hori. Irabazien arabera baino ez dezala gasta norberak, eta soberan geratzen zaionarekin etxeak eta lursailak erosi; horiek, bederen, ez dira ez apurtuko ez eta ez dute balioa galduko. Nobleek luxuzko jantzietan burua asko nekatuz gero, gutxi nekatzen dute gero egin beharreko gerratan.

4. Kaparea

(Nabarmen samar jantzita) Ez dut oraindik denborarik izan etxeko jantzitegia aldatzeko eta horrela erregearen aginduak betetzeko. Aginduak onartu eta bete egingo ditudanak, alafede!

3. Kaparea

Zu baino bizkorrago ibili naiz. Aste batean, ez gehiago, gure etxeko guztiok modu apalean janztera pasatu gara.

4. Kaparea

Menturaz, ongi hornitutako poltsa izango zenuen hain denbora gutxian zuen jantzitegia goitik behera eraberritu ahal izateko. Ala ez ziren hainbeste agian zuk zenituen jantzi eta apaingarriak, haietatik penarik gabe libratzeko?

3. Kaparea

Modu argiagoan hitz egingo bazenu...

4. Kaparea

Argiki esan dut, bai esandakoa eta bai esanahia.

Frailea

Gizonak, kontu horietaz teman gogortzea ez da jende zuzen eta prestuaren moldea. Begiratu, aldiz, zeruak hartutako alegrantzia Portugalgo nobleziak elizaren etsenplu guztiz santua jarraitzen duela ikustean. Lur, pertsona eta bestelako jabetzatan aberats eta ahaltsuak dira gure ordenak, eta, hala ere, begira nola gu, Jainkoaren zerbitzariok, pobre janzten garen. Zer da hobe arimarentzat? Zetaz eta satinez gorputza apaintzea, ala zuen eta erresumaren agindupeko lurraldeak zabaltzea?

3. Kaparea

Arrazioa du berorrek.

4. Kaparea

Arrazoi garbia.

Frailea

Ondo, ba. Eta ez zaitzete berriro haserretu, nobleen arteko haserrealdiek erregearen ogasuna kaltetu eta Eliza goibelarazi baitituzte.

4. Kaparea

Alafede...

3. Kapare

Ebanjelio santuen izenean... (*Besteen artean nahasten dira*)

(Besapean paper batzuk dakartzala, Luís de Camões sartzen da. Deserosotasuna ezkutatzearren, halako aire harroxko batez egiten du pauso. Badaude kuriositate antzeko batez begiratzen diotenak; badaude, aldiz, konturatu ere egiten ez direnak. Presente dagoenetako bat, Miguel Dias, baino ez zaio hurbiltzen.)

Miguel Dias

Gezurra esaten didate nire begiek, ala berori Luís de Vaz da?

Luís de Camões

Ez dizute gezurrik esaten. Gezur handiagoa esango didate izan nintzenaren hondar hauek berorren izena zein den ez badidazu esaten.

Miguel Dias

Gazte ginen garaian, Miguel Dias deitzen ohi zenidan. Zerbait esaten dizu izen horrek?

Luís de Camões

Miguel Dias. Orain gogoratzen dut. Pozten naiz zu ikustez.

Miguel Dias

Zure negozioak bideratzeko asmotan etorri zara? Duarte de Abreuren bidez jakin izan nuen Santa Clara itsasontzitik lehorreratu zinela.

Luís de Camões

Horrexegatik etorri naiz, Indiatik itzultzen diren soldadu guztiak bezala. Eta baita nire paper hauengatik ere.

Miguel Dias

Zer dira idazki horiek, gehiegizko atrebentzia ez bada. Baina isilean gordetzeko kontuak izango dira agian...

Luís de Camões

Nire kalterako litzateke isilean bukatzen badira. Nirekin ekartzen dudana Vasco de Gamak Indiarara egindako nabigazioen kontakizuna eta, Portugal Portugal denetik, portugaldarren balentriak jasotzen dituen liburua da, zortziko errimatuan idatzi dudana.

Miguel Dias

Asmoa bikaina da. Eta emaitza ez da gutxiagokoa izango.

Luís de Camões

Horrela espero dut. Baina ez dagokit niri esatea. Badakizu zer esaten den bere burua loriatzen duenari buruz.

Miguel Dias

Gazte garaian ere, musen konpainia landu zenuen ordurako. Baina orain zure pentsamenduak gailur gorenera egin du hegan.

Luís de Camões

Hegoak ebakita ez erortzea gustatuko litzaidake.

(Martim Gonçalves da Câmara sartzen da)

Miguel Dias

Hau da Martim Gonçalves da Câmara, Estatu idazkaria. Zatoz nirekin. *(Hurbildu egiten dira)*

Martim Gonçalves, hemen da Luís Vaz de Camões, Indiatik etorria errendatutako zerbitzuen ordaina eskatzera.

Martim da Câmara

Pozten naiz zu ezagutzeaz, Luís de Vaz jauna, baina erreparazio horiek ebazteko ardura duten epaileekin hitz egin beharko duzu.

Luís de Camões

Horrela egingo dut, Estatu idazkari jauna. Barkatu Miguel Diasi berorren bidea etetea niri bidea irekitzearren. Hamazazpi urtez bizi izan naiz Indian, ohitura galdua daukat hemengo usantzekin, Estauseko jauregiaren aurrean Beirako nekazariaren moduan nago ni orain. Jaungoikoaren deliberoa izan da, egiatan, Miguel Dias hemen jartzea eta hortik gutxira zu hona ekartzea.

Miguel Dias

Jaungoikoaren borondatearen bitarteko gara denok. Eta enkontru honetan niri zegokidan zeregina amaituta, bakarrik uzten zaituztet, beste motako gai bat baitauka Luís Vazek berorrekin tratatzeko. *(Urrundu egiten da)*

Martim da Câmara

Ezingo naiz gehiegi luzatu. Estatu-kontseilua egiteko erregea ez da berandu etorriko. Zer nahi duzu?

Luís de Camões

Zortziko errimatuan idatzitako lan bat daukat argitaratzeko...

Martim da Câmara

Inkiszioaren oniritzia al duzu?

Luís de Camões

Bi hilabete eskas baino ez dira lehorreratu nintzenetik, Martim da Câmara jauna.

Martim da Câmara

Ez da ordu egokia hitz egiteko, ezta lekua ere. Hortxe dator erregea...

Luís de Camões

Berorren Gorentasuna gela honetatik pasako da?

Martim da Câmara

Bai, pasako da.

Luís de Camões

Hitz bat nire alde esatea, mesede hori eskatzen diot berorri. Esatea liburu honetan portugaldarrek Indian egindako balentriak kantatzen ditudala, esatea...

Martim da Câmara

Luís Vaz jauna, ahal dudana egingo dut zure alde, erregearen eta erresumaren interesen kontra ez badoa, betiere. Hala ere, unea eta egokiera itxaron beharko duzu. Estatu-kontseilua bilduko da orain, bihar Santarém aldera abiatuko da erregea, pentsa ze aukera gutxi izango dudan epe laburrean zure negozioez tratatzeko. Indian errendatutako zerbitzuei dagokienez, esan dut, ardura duten epaileekin hitz egin.

Luís de Camões

Erregea pasatzen ikusi ahal izango dut?

Martim da Câmara

Jakina baietz, hemen bazaude.

Luís de Camões

Muin egiten dut eskuan mesedeagatik. Ez galdu gehiago berroren denbora nirekin.

(Martim da Câmarak alde egiten du. Miguel Dias hurbiltzen da)

Miguel de Dias

Azkenean, nire buruaz baliatu da Jaungoikoa zuri behar zenuen laguntza emateko?

Luís de Camões

Batek daki. Jaungoikoak lerro okerre zuzen idazten badu, bihurri diren hauetan ez galtzea espero dut.

Miguel de Dias

Zure zaindaria izaten jarraituko dut gaur. Badago han lagun bat, berarekin hitz egin beharko zenuen.

Luís de Camões

Nor da?

Miguel Dias

Vidigueirako kondea, leinuaren hirugarren kondea; bere aitona bezala, Vasco de Gama du izena. Zu babesteko prest egongo da agian...

Luís de Camões

Guardako aingeru modukoa zaitut, baina ez duzu miraririk egiterik izango oraingo honetan. Bere Mesedeak bizkarra eman digu, bi fraideekin ari da hizketan...

Miguel Dias

Erregea sartzen ari da...

(D. Sebastião sartzen da. Haren konpainian D. Catarina erregina, D. Henrique kardinala, aita Luís da Câmara, Martim da Câmara eta Gortearen eta Estatu-kontseiluaren beste hainbat pertsonaiak ere sartzen dira. Vidigueirako kondea ere batu egiten da taldera leku printzipalean. D. Sebastião hurbiltzean Luís de Camõesek berarengana egiten du.)

Luís de Camões

(Belauna lurrean jarriz) Gorentasuna... (Ustekabean harrapatuta, murmurio bat sortu eta gelditu egiten da segizioa. Martim da Câmara aurreratu egiten da) Hamazazpi urtez zerbitzatu dut Indian...

Martim da Câmara

Luís Vaz jauna... *(Erreginaren segizioa urduritu egiten da)*

Luís de Camões

Hemen ikusten duzun liburu honetan zuen arbasoen ekintzak eta balentriak ditut idatziak eta portugaldarren nabigazioak, Berorren Gorentasuna jaun den herriarena.

Martim da Câmara

Luís Vaz de Camões jauna, ken zaitetz erditik, utzi Bere Gorentasuna pasatzen. Eragozten ari zara erregearen bidea. Nola ausartu zara?

Luís de Camões

Jauna, utz iezaizkidazu irakurtzen, eta gorteak ere entzun ditzala, zortziko errimatu batzuk, duela ez asko idatzitako hauek, Berroren Gorentasunari eskaintza egiteko. Jakingo duzueenez...

(D. Sebastião-ek, ezaxolaz entzun duela, bestaldera egin eta badoa. Bere atzetik segizio osoak jarraitzen dio, baita eszenaren hasieratik zeuden figurante guztiek ere. Luís de Camões zegoen posturan geratzen da, belauna lurrean, paperak zabalik eskuan. Ez da konturatu baina, irten baino lehen, berari begiratzeko emakume bat atzera bueltatu da. Zutik jartzen da. Esnatu dela dirudi.)

Seigarren eszena

Luís de Camõesen etxea. 1570ko ekaina. Ana de Sá, Francisca de Aragão, Luís de Camões.

Ana de Sá

Nor da? (*Josten ari da. Aulkitxotik altxa eta irekitzera doa*) Noren bila ari zara?

Francisca de Aragão

Luís de Vaz Camõesen bila. Etxean al dago?

Ana de Sá

Badago, bai. Sartu, Berorren Mesedea. Nire semea bere liburuen artean aritu da egun osoan idazten. Duela gutxi oheratu da atsedena hartzeko.

Francisca de Aragão

Lo dago?

Ana de Sá

Egongo da. Eta lo badago, orain esnatzeko bezain presazkoa da zure bisita?

Francisca de Aragão

Oso onuragarria izango da zure semearen interesentzat nik berarekin hitz egitea. Luís de Vaz-en ama zara?

Ana de Sá

Ana de Sá, zure esanetara. Eta zerori, nor da?

Francisca de Aragão

D. Francisca de Aragão, erreginaren dama.

Ana de Sá

Erreginak eskatuta etorri zara? Jauregiko mandatu bat dakarzu? Bertara joan zen nire semea duela bi egun...

Francisca de Aragão

Ez dakart Jauregiko mandaturik. Neu naiz nire mandatua.

Ana de Sá

Zer izena esan duzu?

Francisca de Aragão

Francisca de Aragão. Duela urte asko ezagutu nuen zure semea.

Ana de Sá

Gogoan dut zerorren izena...

Francisca de Aragão

Badaude seme batzuk beraien amak asko maitatzen dituztenak, hainbeste maitatu ezen ezin diete isilik gorde gero beste emakumeei dieten maitasuna. Mota horretakoa al zen Luís Vazek zurekiko zuen maitasuna?

Ana de Sá

Esan duzuna zinezko maitasunaren benetako neurria bada, oraintxe jabetzen naiz noraino maite nauen. Baina, berorrek, zer nahi du berarengandik horrenbeste urte pasa eta gero? Luís Vaz ez da dagoeneko Indiara abiatu zen gazte lerdan hura ...

Francisca de Aragão

Gu geu ere ez gara abiatzen ikusi genuen emakumeak.

Ana de Sá

Ederra da berori. Ni ama naiz.

Francisca de Aragão

Ana de Sá anderea, zure semearekin hitz egin behar dut. Zure etxean nago. Lo dagoela egia bada, nik ezin dut esnatzera joan, baina imajina ezazu zer sentitzen duen nire bihotzak, hain gertu dagoela jakinda, eta zuk ez duzula deitzera joateko keinurik egiten.

Ana de Sá

Berriro esango dizut, Luís de Vaz ez da Indiara abiatu zen gazte lerdana. Zure begiak damutuko dira, agian, berriro ikustean.

Francisca de Aragão

Badakit nola dagoen zure semea. Gortean ikusi nuen.

Ana de Sá

Eta berak, zu ikusi zintuen?

Francisca de Aragão

Ez.

Ana de Sá

Zuen biotatik, berak izango du zorte handiena. Ederra zara, Francisca de Aragão anderea, baina adi zurekin ez ote zaion nire semeari zorigaitza etorriko.

Francisca de Aragão

Munduko urre guztia izango banu nik Luís de Vazena ere izango litzateke. Mesedez, zoaz semea esnatzera.

Ana de Sá

Joango naiz. *(Ateratzen da)*

(Bakarrik geratzen da Francisca de Aragão. Mahaira hurbiltzen da, bertan zabaldutako paperak hartu eta irakurtzeko keinua egiten du, utzi egiten ditu gero eta Luís de Camões etorri behar duen ate aldera begira geratzen da.)

Luís de Camões

Andere.

Francisca de Aragão

Luís Vaz. Luís Vaz, hain pozik nago zu berriro ikusteaz.

Luís de Camões

Eta ni ere bai, andere.

(Ez batak ez besteak ez dakite zer esan. Ezin eutsizko tentsioa apurtu eta Francisca de Aragãoek Luís de Camõesengana korrika egin eta besarkatzen du.)

Francisca de Aragão

O, Luís.

Luís de Camões

Denbora asko pasa da.

Francisca de Aragão

Gortean ikusi zaitudanean, ustekabea, ez nuen zure itzuleraren berririk...

Luís de Camões

Gortean ikusi nauzu? Noiz?

Francisca de Aragão

Erreginaren segizioan nengoen.

Luís de Camões

A.

Francisca de Aragão

Erokeria izan da, Luís de Vaz. Non bizi izan zara erregeak entzungo zizula pentsatzeko, han, korredoren, Kontseilurako bidean.

Luís de Camões

Eta beste une batean, beste lekuren batean, entzungo du? Bi belaunak jarri beharko ditu lurrean Luís de Vazek beren bertsoak entzun ditzatela?

Francisca de Aragão

Sufritu nuen zuregatik. Ahal izan banu, atzera egingo nuen nire besoekin zu besarkatzeko, orain egiten dudan moduan.

Luís de Camões

Bihotz handia duzu.

Francisca de Aragão

Bihotz handia?

Luís de Camões

Ala errukia?

Francisca de Aragão

Ez zara zuregatik errukia izateko gizona. (*Ahapeka.*) Maitasuna izan nizun, nik badakit, eta handia.

Luís de Camões

Denbora asko pasa da.

Francisca de Aragão

Egia da. Hala ere, ikusi zaitudanean, denboraren gurpilak hogeit hamar urte atzera egin izan balu bezala izan da eta ni zure besoetan egongo banintz bezala izan da. Askoz indar handiagorekin besarkatzen ninduten orduan, Luís Vaz.

Luís de Camões

Izandako indarra galdu dute.

Francisca de Aragão

Besoen indarrak bihotzean du jatorria.

Luís de Camões

Andere...

Francisca de Aragão

Francisca da nire izena.

Luís de Camões

Francisca, bego. Ez aberastasunik ezta horren esperantzarik ere ez dut Indiatik ekarri, eta osasuna hondatuta. Itsasoaz haraindiko hamazazpi urtetan zehar itsasoaz haraindian jeneralean sufritzen dena sufritu dut, gehi niri bakarrik zegokidan zatia. Bertsoz betetako paper batzuk ekarri ditut, horixe da dudan guztia.

Francisca de Aragão

Irakurri egin nahi ditut bertso horiek.

Luís de Camões

Zertarako?

Francisca de Aragão

Zutaz, izan zinema ezagutzen dut. Gaur zarenaz, hamazazpi urte horiek niri kontatzeko hamazazpi urte emango bazenitu baino gehiago esango didate bertso horiek.

Luís de Camões

Ez nuke hain bizitza luzerik izango, andere.

Francisca de Aragão

Francisca.

Luís de Camões

Francisca.

Francisca de Aragão

Hain bizitza luzea izango duzun edo ez, Jaungoikoak daki. Orain, bizirik gaude biok. Luís, zu maitatu ahal dudala sentitzen dut berriro.

Luís de Camões

Ni naizen itsu hau?

Francisca de Aragão

Itsua zinen maite zintudan garaian ere.

Luís de Camões

Zorigaitzoko gizon hau?

Francisca de Aragão

Bihotz hori.

Luís de Camões

O, Francisca, emakume asko maitatu izan dituen gizona naiz, eta maitasun handiz bakoitzean. Zu maitatu zintudan...

Francisca de Aragão

Isildu zaitez.

Luís de Camões

Hau baino garai hobeago batean maite zintudan. Zahardadea zegoenik ez genekiela artean.

Francisca de Aragão

Eta orain?

Luís de Camões

Zaharra naiz.

Francisca de Aragão

Ni ez naiz inoiz izango.

Luís de Camões

Hitz horrek zutaz berriro maitemintzeko egingo lidake.

Francisca de Aragão

Maitemindu zaitez.

Luís de Camões

Gerran, gudu-zelaian, laguna erortzen ikusten dugu, zauria arina dela ematen du batzuetan, baina altxatzen lagundu nahi badiougu, gorputzari indarra hustu egin zaio, eta segituan lurperatu beharko dugun hilotza baino ez da. Bestetan, kolpea heriozkoa dela iruditzen zaigu, esperantzarik ez dagoela, eta aurrera jarraitzen dugu eta bat gutxiago garela egiten dugu kontua, baina ondora begiratu eta bere kabuz altxatu dela ikusten dugu eta borrokan jarraitzen duela, baita odol arrastoa utzita atzean ere. Horrelakoxeak dira amodioak. Bizirik daudela uste dugu eta hilda daude, hilda daudela pentsatu eta bizirik diraute.

Francisca de Aragão

Maitemindu zaitez.

Luís de Camões

Ezer ez daukat zuri emateko.

Francisca de Aragão

Maitemindu zaitez. Maitasunak ematen duena baino ez duzu eman beharko.

Luís de Camões

Ez da sute handietan gehien erretzen garenetan. Alde egiten diegu horiei. Itzalita uste genuen suteetan izaten da.

Francisca de Aragão

Denok erretzen gara. Nik ere beste gizonak maitatu nituen, eta asko maitatu nuen bakoitzean. Nire izaera da. Eta, nire bihotza sentitzen duen maitasuna berdina bada, badakit gaurko une hau ez dela zuk maitatua izan nintzen garaiko haren ezberdina izango.

Luís de Camões

Berdina da?

Francisca de Aragão

Bihar jakingo dut. Denborak esango du.

Luís de Camões

Ondo begiratu, Francisca. Ez zaigu kezkarik faltako gero.

Francisca de Aragão

Eta, hala ere, zergatik izan kezka? (*Gogoeta eginez*) Hortxe duzu. Egidazu bertso bat puntu horrekin.

Luís de Camões

Ze puntu?

Francisca de Aragão

“Eta, hala ere, zergatik izan kezka?”. Egingo dituzun bertsoengatik jakingo dut maite nauzun.

Luís de Camões

Serio esaten duzu?

Francisca de Aragão

Oso serio.

Luís de Camões

Saiatuko naiz zu engainatzeko bezain ele-ederrekoak ez izaten, ezta ni zapuzteko bezain ele-zatarrekoak. Bidaliko dizkizut bertsoak.

Francisca de Aragão

Baina orain, Luís de Vaz, utz diezaiogun maitasunaz hitz egiteari. Joanak joan dira, eta etorkizunak hitzez baino egitez esango du. Berriro maitatuko zaitut, baina hitz egin dezagun zure negozioez.

Luís de Camões

Ez doaz bide onetik...

Francisca de Aragão

Biderik izango dute. Portugaldarrek itsasoetan barrena egindako bidaiez idatzi duzun obraren kopia bat egin niretzat, erreginarekin hitz egingo dut nik, bilatuko dut modua zure lanaren berri erregearengana iristeko, badut esku pixka bat gortean. Zugan interesa agertuko duten kapareak egongo dira, ziur. Zure itsasaldi luzea bukatu da, portu segurura iritsi zara, ikusiko duzu nola aldatuko den dena.

Luís de Camões

Adore handikoa zara.

Francisca de Aragão

Bestelako emakumea nintzen elkar ezagutu genuen garaian? Kontua da agian ez ninduzula horrela ikusten, besterik ez. (*Isilunea*) Eta beste gauza bat egin behar duzu, ezen hori zuri dagokizu, Vidigueirako kondearekin hitz egin behar duzu, D. Vasco da Gamarekin, bere leinuari onura handia erakarriko dio zure liburuak argia ikusteak. Berak emango dizu babesa.

Luís de Camões

Ziur zaude?

Francisca de Aragão

Bere aitonari zor dio haren memoriaren gorazarre egitea.

Luís de Camões

Jaungoikoak entzun ditzala zure hitzak.

Francisca de Aragão

Entzungo ditu. Baina orain, Luís, utz iezadazu joaten. Pozik noa.

Luís de Camões

Utziko didazu muxu bat ematen?

Francisca de Aragão

Noizdanik Luís de Camõesek muxu bat eskatu? Eman, muxua eman.

(Ateratzen da. Luís de Camões-ek irriño egiten du. Ametsetan dago. Ana de Sá sartzen da.)

Ana de Sá

Zer nahi zuen zugandik erreginaren dama horrek?

Luís de Camões

(Burua astinduz, sinetsi ezinik.) Francisca...

Zazpigarren eszena

Vidigueira kondearen jauregia. D. Vasco da Gama, D. Maria de Ataíde kondesa, Luís de Camões, Manuel da Encarnação fraidea, neskameak, zerbitzariak.

Conde de Vidigueira

(Zerbitzari bat hurbiltzen zaio ahopean mezu bat emateko) Ekar ezazu hona. *(Kondesari)* Hementxe dator Luís de Vaz, ea zer erantzuna ematen diodan bere gutunari. *(Besteei)* Ez atera, munta txikiko negozioa da eta ez dago sekreturik...

Luís de Camões

(Sarreratik) Konde jauna... *(Burua makurtzen du, keinu bera errepikatzen du gero kondesari zuzenduta)* Kondesa anderea...

Conde de Vidigueira

Sar zaitetz, Luís Vaz jauna.

Luís de Camões

Zure mezua jaso nuen, konde jauna. Berorren Mesedeak etortzeko agindu dit, hemen nago... Nire gutuna eta bidalitako bertsoak irakurri dituela pentsa dezaket?

Conde de Vidigueira

Zure gutuna eta berarekin batera bidalitako paperak irakurri ditut. Esan argi zer nahi duzun.

Luís de Camões

Konde jauna, gutunak zure eskuetan dauden bertsoen kopientzat eta nire etxean kopiatu gabe geratu den sortarentzat zure babesa eskatzen zuen. Eta esaten zuen obra horretan kontatzen direla portugaldarren balentriak eta Indiara egindako nabigazioak, zeinetan zure aitona goi almirantea zen.

Conde de Vidigueira

Egiaz, ez didazu nire familiaren historia kontatu nahi izango. *(Neskameen barreak)*

Luís de Camões

Ezin liteke hori nire asmoa izan. Argi esateko agindu du Berorren Mesedeak.

Conde de Vidigueira

Baina ez zuri ez gutuna eta ez bertsoak berriro errepikatzen entzuteko. Luzamendutan ez ibili.

Luís de Camões

Berorren Mesedearen erantzunaren zain nago.

Conde de Vidigueira

Idatziz jasoko duzu, baina nire aitona eta nire aitaren memoria gogoan, Vidigueira etxe honen oinordeko moduan, hona etortzeko agindu nizun. Zure gutunean babes eskatzen duzu. Zein babes mota da espero duzuna?

Luís de Camões

Nire obrarentzat bidezkoa izango dena eta berorren arbasoaren memoriak merezitutakoa.

Conde de Vidigueira

Zure obra nire aitonaren memoriaren gainetik jartzen duzu?

Luís de Camões

Ordena horretan atera dira hitzak nire ahotik. Berroren Mesedeak ezin ditu beste judiziorik egin.

Conde de Vidigueira

Niri, Vidigueirako kondea eta Indiako almirantea, niri esaten didazu beste judiziorik ezin dudala egin? Oso errespetu gutxiko gizona zara, Luís de Vaz jauna.

Luís de Camões

Konde jauna, berorren baimenaz, espero dudana babes berorren arbasoaren memoriarentzat justua dena eta nire obrak merezi duena dela esan nahi dizut.

D. Maria de Ataíde

Berandu dator zuzenketa, eta aldrebasa, zetazko oihalean kordoizko adabakia jarrita.

Luís de Camões

Nik, kondesa anderea, jantzeko oihalez, jantzita dakartzan oihal hauetan baino ez naiz aditua, eta hauek ez kordoikoak ez zetazkoak ez dira.

D. Maria de Ataíde

Harro atera zait hain babes handia behar duela esaten duena.

Luís de Camões

Harro izateari utzi nion eskaera egin nuenean.

Conde de Vidigueira

Luís de Vaz jauna, kontu honek ez du hizketa luzeagorik behar. Dirua baldin bada Vidigueirako etxe honetatik espero duzuna, dirua espero baduzu...

Luís de Camões

Obren eskaintza babesleei egiten zaie...

Conde de Vidigueira

Dirua bada...

Luís de Camões

Berorren Mesedeak ezezko batez erantzun behar du ez badu eman nahi.

Conde de Viguideira

Ezezkoa ematen dut.

Luís de Camões

Konde jauna, zure aitona, lehenengo Vidigueirako kondea handiesten eta kantatzen duen nire lanaren inprimaketa Indiatik hutsik etorri den nire poltsatik atera beharko da orduan. Beste askok Indiatik beterik ekarri zuten poltsa. Agian beraiei laguntza eskatzera makurtuko naiz azkenean; baina, laidogarria izango zitzazulakoan bestela, berorreatatik hastea pentsatu nuen...

Conde de Vidigueira

Poeta zara eta ele-ederrekoa, Luís de Vaz jauna. Gorde zuretzat zure hitz jario ederraren eta idazkera dotorearen loria, ezen Vidigueirako etxeak ez du inor behar bere loriak kantatzeko, eta behar izanez gero agindua eman eta ordaindu egingo du kantatuak izateko. Nik ez dut gogoratzen zuri agindua emana izatea lan hori egiteko. *(Luís de Camões-i paperak bueltatu eta honek hartzen ditu)* Joan zaitezke.

Luís de Camões

Non harrapatuko du Herioak Vidigueirako kondea? Hiltzeko ordua iristean, batek daki ni baino lehen ote, ongi litzaizuke hitz horiek gogoan hartzea. Azken aldia izango duzu hori jaungoikoari barkamena eskatzeko horrelakoak esateagatik. Kondesa anderea... *(Atera egiten da)*

D. Maria de Ataíde

Beste begitik ere itsu geratuko ahal zara! Bilau zital hori...

Hainbat ahots

Itsu geratuko ahal zara! Ea itsu geratzen zaren!

onde de Vidigueira

Isildu! Luís de Vaz ez da bilau. *(Isilunea. Murmurikatuz)* Non harrapatuko du Herioak Vidigueirako kondea?

D. Maria de Ataíde

Kasurik ez egin asturu horiei. Zer iruditu zaizu ausarkeria hori, Manuel da Encarnação anaia?

Manuel da Encarnação fraidea

Barka diezaiogun zoroari bere buru eskasia.

D. Maria de Ataíde

Begira. Luís de Camões-ek ekarritako papere horietatik hau hemen geratu da.

(Vidigueirako kondeak keinu neketsu bat egiten du eskuaz. Kondesak, haserrealdiak hartuta, papera lau zatitan apurtu eta lurrera botatzen ditu zatiak. Neskameak eta zerbitzariak paper pusken gainean oldartzen dira, beraien artean borrokan, puskek hartu eta are zati txikiagotan apurtzen dituzte airera botatzeko gero.)

Lehenengo ekitaldiaren bukaera

BIGARREN EKITALDIA

Lehenengo eszena

Damião de Góis en etxea, Castelo herrian. 1571ko otsaila. Eszenatokia hutsik dago tarte batez. Antzinako musika entzuten da. Gero Damião de Góis, Luís de Camões eta Diogo do Couto sartzen dira. Ez modu nabarmenean, Camõesek eta Coutok Damião de Góis zutik egoten laguntzen dute. Geroago, Francisca de Aragão etorriko da.

Damião de Góis

Jaungoikoak bedeinka zaitzatela, ene adiskideak. *(Eseri egiten da)* Hala ere, ez uste indarrez hain makal nagoen gauza ez izateko gero, nire etxean, laguntzarik gabe ibiltzeko. Baina halako ahuldadea nozitzen dugu zaharrok, parean bizkar sendo eta bihotz gazte batzuk hautematen ditugunean bereziki. Azkenean, eman dezagun ez dela ahuldadea izango, adinak arimari dakarkion beratasuna baizik.

Luís de Camões

Diogo do Couto da gaztea. Neu naiz arima beratzeko tenorean dagoena dagoeneko, baina bizkar hauetan eta bihotz honetan topatuko duzu beti, Damião de Góis jauna, zure ahuldadea deitzen duzun hori eusteko sostengua. Dena den, jakinduria baino ez dut zugan ikusten, eta ez espiritu ahul edo indargabea.

Damião de Góis

Elkarri hitz samurren dema hasiko bagina, ziur naiz irabaziko zenuela. Hala ere, gure solasaldian aurrera egin baino lehen, zuk diozun zure arima beratzeko tenorean zaudela errefusatzen dut. Eta adina izango bazenu ere, ahuldaderik ez duzu. Nork, zuk ez bestek, idatzi du horrelako bikaintasun goreneko obra...

Luís de Camões

Ez dirudi gortean ahots asko bilduko diren zurearekin iritzi horren alde korua egiteko.

Diogo do Couto

Urtebetea egingo du laster Luís de Vaz Lisboaara iritsi zenetik, eta itxaropenez eta etsipenez bizi izan da ordudanik. Damião de Góis jauna, zer zentzugabekeria da hau, zer erreinu mota daukagu? Sekulan ez da Portugalen horrelako libururik idatzi, eta inork ez du estimatzen.

Damião de Góis

Jaten dugu, edaten dugu, olgeta onestak egiten ditugu, kontu larriez hitz egin dezagun orain. Baina aurretik, zoaz leihoa ixtera, Diogo do Couto, otsaileko eguzki honi argitik soberan duena berotik falta baitzaio, eta itxi atea ere bai, Portugalek ere soberan duenagatik eta Portugalek faltan duenagatik. *(Horrela egiten du Diogo do Couto.)*

Luís de Camões

Modu enigmatikoan ari zara gaur, Damião de Góis jauna.

Diogo do Couto

Zer da Portugalek faltan eta soberan duen hori?

Damião de Góis

Espiritu librea falta zaio Portugali, adoregabeko espiritua du soberan. Bizipoza falta zaio Portugali, negar malkoak ditu soberan. Tolerantzia falta zaio Portugali, harrokeria du soberan.

Luís de Camões

Horregatik agindu duzu zeure etxean bertan atea ixtea?

Damião de Góis

Horregatik izan da. Nahiz eta askotan gertatu ateak eta ahoak beranduegi ixtea.

Diogo do Couto

Damião de Góis jauna, mesedez, argi hitz egitea eskatzen dizut.

Damião de Góis

Hitz egin dezagun aurretik Luís de Vazen liburuaz, nahiz eta gauza berberaz hitz egitea izan azkenean. Zer pauso eman dituzu?

Luís de Camões

Martim Gonçalves da Câmaraekin hitz egitera joan nintzen, eta promesak egiten ohi diren moduan egin zidan promesa. Belauniko jarri nintzen erregearen aurrean, inozoki pentsatu bainuen, han, gortearen aurrean, nire liburua denen bistan jarrita, Berorren Gorentasunak onberatasunezko keinu bat egin eta nirekin hitz egingo zuela. Gaur da eguna noiz oraindik ez dakit nolakoa den Sebastião Jaun erregearen ahotsaren soinua. Vasco da Gama Jaunaren babesa eskatu nuen baina orain, ez zure aurrean Damião de Góis jauna, ezta zuri ere, Diogo do Couto, kontatuko ez dudan umiliazioa jasan nuen. Eta ez bati ez besteari ez badizuet kontatzen, pentsa nola kontatuko beste edozeini.

Diogo do Couto

Ezta D. Francisca de Aragãoi ere?

Luís de Camões

Diogo do Couto, ez dut galdetuko zure galderaren arrazoi ezkutuaz, arrazoi ezkukurik badagoen. Andere horri buruz ari bazara, nahiago dut pentsatu gortean nire alde egiteko interes handia adierazi zidala esan nizuelako izan dela.

Damião de Góis

Belarriek ez badidate gezurrik esaten, errieta egiten ari zara.

Luís de Camões

Gezurra esaten dizu, bai. Diogo do Coutok galdera bat egin du, eta nik erantzun. Ez da argituko eguna gure arteko liskarra ikusiko duena.

Diogo do Couto

Halaxe da. Eta nira galderan asmo ezkukurik ikusi baduzu, ez da nire gaiztakeria, gortean entzuten diren zurrumurruena baizik.

Luís de Camões

Zer esaten dute gorteko zurrumurruek?

Diogo do Couto

Gortek esaten du Luís de Vazek Diogo do Couto bere lagunari kontatu nahi ez diona. Salbu eta gortea gezurretan ari bada, eta orduan ez luke Luís de Vazek Diogo do Coutori ezer kontatzeko, egia esan.

Damião de Góis

Nahiago duzue ni ateratzea zuen arteko jarduna jarraitzeko?

Luís de Camões

Iraintzat hartuko nuke, Damião de Góis jauna. Ahaide txikia zaitut, eta gauza hauek entzunda ez zure izen onak ez eta nireak ez dute kalterik izango. Bai, agian, izena aipatu gabe hitz egiten ari garen pertsonarenak.

Diogo do Couto

Barka iezadazu, Luís de Vaz. Nire ahotik ez da hitz bat bera ere gehiago aterako. *(Leiho aldera egiten du.)*

Luís de Camões

Hobe da horrela. Funtsezkoena jakiteko oraintxe esango dizudana baino ez zaizu falta, Damião de Góis jauna. D. Francisca de Aragão erreginaren damak nire alde egin zuela gortean, alegia.

Damião de Góis

Zer ondorioekin?

Luís de Camões

Ondoriorik gabe gaur arte, nik dakidala.

Damião de Góis

Neu joango naiz zure liburuaz galdetzera. Estimatu handitan nauka kardinal-infanteak, Luís de Castro nire suhia kaparea da bere etxean eta bere diru kontuak zaintzen ditu, zutaz hitz egingo diot arren laguntzeko. Hau esanda, eta gaiak aldatu gabe, azter dezagun orain, edo saia gaitezen antzematen, zeintzuk izan diren topatu dituzun eragozpen eta oztopoak zure liburua inprimatzeko. Kasu eman zuk ere, Diogo do Couto. Leiho horretatik ikusita, ederra da Lisboa, dudarik gabe, baina kontu hauek garrantzia handikoak dira Luís de Vaz zure lagunarentzat.

Luís de Camões

Leihotik ere, apostu egingo nuke Diogo do Coutok hitz bat bera ere ez duela galduko.

Diogo do Couto

Nitaz barre ari zarete biak?

Luís de Camões

(Diogo do Coutoren aldera joanez.) Zatoz hona, Diogo. Entzun dezagun orain Damião de Góis. Hitz egingo dugu gero besteaz, alde egiten dugunean, eta dena azalduko dizut. Ez duzu gorteko zurrumurruek esanda benetako egia jakingo, nire ahotik entzunda baizik.

Damião de Góis

Eser zaitezte, bada, eta zuen sekretuak hor nonbait gorde. Luís Vaz, eta hasierako hitz hauekin esan behar nizkizun garrantzizko kontuei bidea irekitzen diet, idatzi duzun liburua horren obra bikaina izanik, Diogo do Coutok esaten duen eta nik berresten dudan moduan, belaontzi bat gogorarazten dit, jende askok nabigatzeko nahi duen belaontzia baldin eta beste inor ez bada bertan itsasoratzen, beti ere. Eta denek baldintza hori bera jartzen dutenez, kaian lotuta dago belaontzia.

Luís de Camões

Argiago hitz egingo bazenu...

Damião de Góis

Oraintxe argituko. Indiatik iritsi zinenean, gaur den modukoa zen zure liburua? Ez duzu erantzun behar. Hementxe izan nuen, nire etxean, zure eskuz idatzitako testua, kontu eta arreta handiz irakurri nuen, baina nahikoa zen tintaren gorabeherak ikustea, zu dagoeneko Portugalen zinela eta hemen topatu duzunaren kariaz, esku-izkribuari erantsitakoak antzemateko.

Luís de Camões

Horrela da. Erregerik bazegoela baino ez nekien nik erregeaz, ez ahaztu. Lisboan idatzi nuen eskaintza...

Damião de Góis

Zer gehiago?

Luís de Camões

Bosgarren kantuaren bukaera, zazpigarrenarena ere bai, bederatzigarren kantuaren oktaba batzuk, beste batzuk hamargarren kantuan...

Diogo do Couto

Eta, ondo ezagutzen bazaitut, gehiago idatziko duzu oraindik, idatzita ez badaukazu dagoeneko, etorkizunean denek jakiteko Vasco da Gamaren oinordekoek ez zutela Vidigueira etxeko fundatzailearen ohoreak merezi zuen moduan zaindu.

Luís de Camões

Idatzita dago, ez egin zalantza.

Damião de Góis

Indiatik idatzita ekarri zenuena, Luís Vaz, aintzinako Portugalgo historia izan da, nabigazio handien kontakizuna. Erantsi dituzun horiek guztiak gaur egungo kontuak dira, Portugal noraezean dabilen garai honetakoak, zeinetan nora doan inork ez dakigula.

Diogo do Couto

Oso zulo sakonera doa.

Luís de Camões

Ez da joango.

Damião de Góis

Erregeak, irakurketetara emandako erregea izango balitz, aintzat hartu beharko zituen obraren hasieran berari eskainitako oktabak, zeinetan konkista handiak iragartzen diren. Beldur naiz, baina, oktaba horiek direla, hain zuzen, D. Henrique kardinalaren gustukoak ez direnak, horrelako abenturekin artega handia hartzen duena. Hala ere, kardinalak berak ulertuta izango du dagoeneko, eta ez da nik ziurtasun osoz dakidala, baina susmoa dut kardinal-infanteak ulertuta izango duela, zuk portugaldarrak eta haien erregeen historia goratzean, zure liburuak oztopo handia erakarriko duela D. Catalinaren asmoentzat, zeinak, diotenez, gogo bizia erakutsia omen du Portugal Gaztelarekin hurbiltzeko.

Luís de Camões

Damião de Góis jauna, galdu egiten naizela ulertu beharko duzu, horrenbeste nahi eta ez nahi gora eta behera.

Damião de Góis

Ez dizut, bada, oraintxe bertan esan zure liburua belaontzia dela, zeinean bakoitzak beste konpainiarik gabe bidaiatu nahi duen?

Luís de Camões

Zalantzaz beterik uzten nauzu zure hitzekin.

Damião de Góis

Bide zuzenak egokiagoak direla zalantzarik ez izan, baina horrelakoak ez daude ez nazioen bizitzan, ez eta gorteen eta dinastien interesetan ere. Zure obra argitaratua izango da Luís de Vaz, baina soilik balantza, modu nabarmenean, alde batera edo bestera makurtzen denean

Luís de Camões

Hala ere, liburua orain den bezalakoa izango da, ez da aldatuko.

Damião de Góis

Aldea irakurtzen duten begietan egongo da. Eta garaile suertatzen den aldeak berari gehien komeni zaion begiradrekin irakurraraziko du liburua.

Diogo do Couto

Eta galtzaile suertatzen den aldea, zer egingo du?

Damião de Góis

Bere irakurketa egiteko momentua noiz iritsiko zain geratuko da, beste era batera irakurrarazteko.

Luís de Camões

Nik badakit zer idatzi dudan.

Damião de Góis

Jakingo duzu, zalantzarik ez daukat. Baina nik ere banekien *Etopiarren fedeaz, ohiturez eta erlijioaz* nire liburuaren bigarren partean zer nuen idatzia, eta ez nuen pentsatu Ofizio Santuak arrazoirik zuenik Lisboako aduanan konfiskatuta geratzeko.

Diogo do Couto

Noiz gertatu zen hori?

Damião de Góis

Duela hogeita hamar urte. European nengoen ni orduan. D. Henrique kardinalari idatzi nion eta erantzun zidan konfiskazioaren arrazoia zela, fede kontuei buruzko eztabaidetan ari zirela, Joanes bereterraren enbaxadorearen ahoan jartzen nituen argudioak pisutsuagoak zirela apezpikuarenak baino. Nik banekien zer nuen idatzia, Ofizio Santuak bazekien zer irakurtzen zuen. Arotzak ontzi bat egin, eta berandu gabe etorriko zaio norbait karabela bat dela esanez.

Luís de Camões

Horrelako tratua jasan beharko du nire liburuak?

Damião de Góis

Zalantzarik ez izan. Ulertzen dituzu orain zure liburuaz esan behar nizkizun kontu larriak, eta zergatik agindu diot Diogo de Coutori atea ixteko? Jabetzen zara Portugalek zer du faltan eta zer soberan?

Diogo do Cuoto

Damião de Góis jauna, zuk atzerriko herrialdetan horrenbeste urte eman dituzula, zuk Europako hainbeste eta hain espiritu argitsuak adiskide izan dituzun horrek, zergatik itzuli zara erresumara?

Damião de Góis

Hemen ez egoteak sortzen zidan tristuragatik. Handikeriak harrapatu eta oso maitatua izango nintzela pentsatzeagatik.

Diogo do Couto

Eta maitatua zara?

Damião de Góis

Tombo Dorreko zaindari nagusia naiz.

Luís de Camões

Ez duzu poz handirik erakusten.

Damião de Góis

Luís de Vaz, hirurogeita hamar urte betetzetik gertu nago. Zer da poz handia erakustea nire adinera iristean? Jainkoaren nahia izan bedi orain erakusten dudan kontentamendua bederen inoiz ez faltatzea. Bizitza maite dut, lagunak izatea maite dut, maite ditut liburuak, musika, filosofia, pintura eta eskultura, ardo onak maite ditut eta ondo jatea.

Diogo do Couto

Ez duzu portugaldarra zarenik ematen.

Damião de Góis

Ez dago ni baino portugaldarragoa denik.

Diogo do Couto

Begira nolakoak diren gizakion kontuak. Zu European barrena bidaiatu duzu eta zure bizitzaren ilunabarrean itzuli zara hona. Luís de Vaz Indiatik itzuli da eta hemen geratuko denik zalantzarik ez dut. Ni bera bezala etorri naiz, baina Indiara itzuliko naiz seguruena.

Luís de Camões

Ez didazu ezer esan.

Diogo do Couto

Agian lehenago pentsatu ez nuelako. Ez zaizu inoiz gertatu? Zerbaiti buruz sekulan ez pentsatu eta bat-batean buruaren gainean erortzea, nondik etorri den jakin gabe, eguzkia bete-betean egon eta aurretik ikusi ez dugun hodei ilun bat etortzea bezalakoa da. Bataila hasten den momentua bezalakoa, susmo gaiztoek hartu eta gutaz jabetzen dira istantean.

Luís de Camões

Indiari buruz hitz egin duzunean ez dituzu hitz politak erabili.

Diogo do Couto

Portugali buruz ari naizenean ere ez dut arrazoirik ikusten hitz politagoak erabiltzeko. Zoritxarraren arrautzak Goan jarri zituen hegaztiak hemendik hasi zen hegan.

(Atean jotzen dute. Asaldatu egiten dira apur bat.)

Damião de Góis

Sartu. *(Morroi bat sartzen da)* Zer nahi duzu?

Morroia

D. Francisca de Aragão anderea kanpoan dago, Luís Vaz de Camões jaunarekin hitz egin nahi du.

Diogo do Couto

Hauek etortzeko orduak!

Damião de Góis

Zuk joan nahi duzu, Luís de Vaz, D. Francisca de Aragão andeari harrera egitera? Senitartekoa zaitut, nire etxea zurea da, zu izango zara anfitrioi.

Luís de Camões

Joango naiz, jakina. (*Ateratzen da*)

Damião de Góis

Lotsak gorritutako mutil gaztea ematen zuen Luís de Vazek, bere begietako eta bihotzeko damaren aurrean.

Diogo do Couto

Ez esan berak entzuteko moduan. Gazte garaiko lotsagorritzeak ahaztuta dituela jada erantzungo dizu, eta zahardadeak ez zizkiola baimenduko oraingo hauek, horixe baita zaharraren patua.

Damião de Góis

Zahartuta egongo da, nahi baduzu, baina kolorea gorritu zaio. (*Barre egiten dute biek*)

Luís de Camões

(*D. Francisca eskutik ekarriz sartzen da*) Berri onak dakarzkiz zure bisitak, Damião de Góis jauna.

Damião de Góis

Zuretzat hala izan da, Luís Vaz.

Francisca de Aragão

Denontzat da albiste ona. Esaiezu.

Luís de Camões

Esazu zuk, zuri dagokizu eta.

Francisca de Aragão

Bukatu dira behingoz gorteak jartzen zituen oztopoak. Luís Vazek bere eskuizkribua aurkeztu ahal izango du Ofizio Santuaren aurrean, eta dagokion momentuan inprimatzeko baimena ziurtatuko dion agiria jasoko du. Luís Vazen etxera joan naiz, eta hemen zegoela esan dit Ana de Sà andereak. Oso zonalde garaian duzu bizilekua, Damião de Góis jauna.

Damião de Góis

Castelo herri honetatik ondo ikusten da Lisboa. Balantza alde batera makurtu da azkenerako.

Francisca de Aragão

Zer esaten duzu?

Diogo do Couto

Luís Vazek azalduko dizu gero, baina ari ginen hizketaz ari da. Gure esker ona merezi duzu, andere. Nire aldetik, besterik ezin dut, egindako mesedearen onuraduna bera banintz bezain eskertuta, eskuan egiten dizut muin.

Damião de Góis

Eta nik bat egiten dut Diogo do Coutorekin.

Francisca de Aragão

Eta zuk, Luís Vaz, zer emango didazu?

Luís de Camões

Andere...

Francisca de Aragão

Hau gizon eskergabea. Gortea utzi, Mourariara korrika joan, Castelo herrira igo, berri onak dakartzat, eta Luís Vazek gauza bakarra dauka niri esateko: Andere...

Luís de Camões

Nitaz trufatzen ari zara... Badakizu nire sentimendua zein den...

Francisca de Aragão

Nahikoa zait hori orduan. Ederki jakinda gainera, eta jakin dezatela jaun hauek orain, neri erakutsi beharreko esker ona ordainduta dagoela aurretik...

Luís de Camões

Andere hori, zer pentsatu behar dute Damião de Góis eta Diogo do Couto jaunek?

Francisca de Aragão

Nahi dutena pentsa dezatela. Pentsatzen duten horretan oker egingo dute, edo asmatu, baina ez zure esker onaz esandakoan.

Damião de Góis

Andere, guk ez dugu ezer pentsatzen.

Francisca de Aragão

Asko harritzen naiz.

Luís de Camões

Gurekin lagun egitera geratu nahi baduzu...

Francisca de Aragão

Utzi egingo zaituztet nahi duzuenaz lasai pentsatzen. Baina joan baino lehen, Damião de Góis eta Diogo do Coutori esango diet Luís de Camõesek niri eskainitako esker onaren froga nirekin beti daramatzat bertso hauek direla, nik emandako puntuari jarriak. Berak bota dezala bertsoak, bertsoek beraiek hitz egin dezaten, nik ez baitut esango beraiek berez esaten dutena.

Diogo do Couto

Misterio gehiago.

Francisca de Aragão

Zer misterio, hori, ez dut esango. Gorteko esamesei utziko diet misterioak argitzen. Luís de Vaz, plazer handia hartuko nuke zuk idatzitako bertsoak irakurriko bazenitu. (*Paper bat ematen dio*)

Luís de Camões

Zure aginduetara. (*Irakurriz*) Puntuari jarritako Lehenengo Bertsoa. D. Francisca de Aragãoren arretara bidalitako bertso forma duten lerro hauek:

Eta hala ere zergatik izan kezka?

Hain oinaze handiak izanik

Nik betitik nozituak,

Nire baitatik sortuak,

Ezen ez dakit zer gogaitik

Izan nintzen munduratua.

Ene bihotz hau ikusirik

Arrisku zoroetan

Eroria, bada kezketan

Preso naizela susmo dut nik.

Eta, hala ere, zergatik izan kezka?

Puntu berberari jarritako Bigarren Bertsoa.

Zeren bila zatozte nigana,

Kezkak, gatibu naukazuela?

Ezer emateko ez dudala.

Ni hiltzera bazatozte, bada,

Aspaldian da bizi ez naizela.

Jasangaitzezko oinazea

Ekartzera bazatozte,

Nik, gehiegitan sufritu dudala,

Ez dizuet esango ez etortzea.

Eta, hala ere, zergatik? Izan kezka?

Puntu berberari jarritako Hirugarren Bertsoa.

Amodioak piztutako penak

Hain bide samurrez badatozkit,

Ez hartu, bada, errezelarik,

Zer axola du ene kezkak

Besteren mila soseguren aldean.

Hain begi ederretan baditut

Zentzumen denak sorgindu,

Ongi dakit etsipenean

Kezken arriskuak arindu.

Eta, hala ere, zergatik! Izan kezka!

Damião de Góis

Talentu handikoa zara, Luís de Vaz. Zaila zen puntua, are zailagoa hartu dituzun hiru zentzutan. Eta zuk, Diogo do Couto, ez duzu uste misterioak ez direla misterio?

Diogo do Couto

Esan duzun horrekin bat egiten badut nik, Luís de Camões haserretuko da nirekin.

Francisca de Aragão

Baina ni ez. Luís, lagundu nazazu nire palankinera. *(Ateratzen dira)*

(Damião de Góisek eta Diogo do Coutok elkar begiratu eta barre egiten dute, barre txikia hasieran, barre ozena gero, Damião de Góis ito eta eztulka hasteraino, eta horregatik, Luís de Camões itzuli arte ezin izango dute hizketa berrartu.)

Luís de Camões

Ni larrutzeko lanetan aritu zarete?

Diogo do Couto

Ez, esku artean darabiltzazun misterioez baino ez genuen barre egiten.

Luís de Camões

Jada ez dago misteriorik.

Damião de Góis

Azkenean, ondo bukatuko dugu eguna. Eta hauek bezalako garai hain ezegonkorretan, zeruak emandako oparia da eguna ondo bukatzea. Balantza erregearen aldera makurtu da, orain komeniko litzateke Ofizio Santuaren aldera orekatzea. Luís de Castro nire suhiarekin hitz egin behar dut, esan dizuedan moduan, kaparea eta inkisidore nagusiaren etxeko diruzaina da.

Bigarren eszena

Inkisizioaren Jauregia, 1571ko martxoan. Luís de Camões, Aita Bartolomeu Ferreira.

Fraidea

(Luís de Camõesi sartzera gonbidatuz) Itxaron lasai, Berorren Mesedea. Aita Bartolomeu Ferreira laster etorriko da. Berorren Mesedearen etorreraren berri emana dago.

Luís de Camões

Itxaron egingo dut. *(Fraidea ateratzen da. Luís de Camõesek paseotxo bat ematen du, eseri egiten da, altxatzen da berriro.)*

Aita Bartolomeu Ferreira

Deo Gratias! *(Luís de Camõesi eskua luzatuz muin egitek)* Eser gaitezen, Luís de Camões jauna. Zure Os Lusíadas liburuz hitz egin behar dugu. Kasuak behar dituen zuhurtziaz eta ardura handienaz irakurtzen eta aztertzen ari naiz.

Luís de Camões

Berorren Argigarritasuna da nire liburua aztertzen ari dena...

Aita Bartolomeu Ferreira

Neu naiz. Eta esan behar dizut, oraindik bigarren irakurraldia amaitu gabe dudalarik, ez dudala bertan gure fede santuaren kontrako ezer aurkitzen. Aldi berean, ordea, ez nintzateke ausartuko gauza bera esaten ohitura onei dagokienez. Berorren Mesedearen liburuan non-nahi aurki daitezke gorputz biluziak, hainbestearainoko desmasian non irakurketa zentzumenen etengabeko alarma bilakatuko duen.

Luís de Camões

Behar-beharrezkoak dira horiek nire liburuan. Ederki baitaki Berorren Agurgarritasunak antzinako jainkoek, eta jainkosek bereziki, arreta gutxi jartzen zutela jantzietan, pinturetan eta estatuetan irudikatuta ikusten ohi ditugun moduan. Baita Eva, gure lehendabiziko ama, eta Adan, gure lehendabiziko aita ere...

Aita Bartolomeu Ferreira

Egon, Luís de Camões jauna, mantso ibili. Adan eta Eva biluzik ibiltzen ziren errugabetasun egoera garbian bizi zirenean. Bekatuan erori ondoren, Jaungoikoak erabaki zuen, tira, azkenean, Jaungoikoak ez zuen erabaki, beraiek izan ziren beren burua biluzik ikustean janztea erabaki zutenak. Arrazoi garrantzitsu batengatik, ikus dezakezunez. Bada aldea.

Luís de Camões

Arrazoia du Berorren Agurgarritasunak.

Aita Bartolomeu Ferreira

Ondo, bada.

Luís de Camões

Baina nire liburua ezertan ez doa gure fedearen aurka, Berorren Agurgarritasunak berak esan du...

Aita Bartolomeu Ferreira

Lehenengo eta bigarren irakurraldietan, ez dut aurkitu. Nahiz eta bietan zalantza sortu dit Vasco da Gamak Jainkoaren Babesa eskatzen duen pasarteak, dagoen trantze larrian babes eta defenda dezan erregutu eta Venus izatea entzun eta bere alde agertzen dena. Zer duzu esateko? Baita marinelen zaindaria den Karmengo Amaren beraren gainetik ere, zergatik ez zenuen Ama Birjina irudikatu babesle kinka horretan? Pasarte lazgarri horrek izaera erlijioso bat hartuko luke, debozio kutsu bat, orain dagoen moduan falta zaiona, non, ekaitza amaitzeko, haizeak seduzitzen dituzten ninfen arteko kontu bat izatera mugatzen dena. Zer erantzuten diozu horri?

Luís de Camões

Bi zatitan emango dizut nire erantzuna. Lehenik eta behin, jainko eta ninfen fikzio batez baliatzen hasi nintzenez, obraren garapen logiko eta zuzenaren aurka joango litzateke artean aitaturia izan ez den Ama Birjina Santua, bat-batean, agertzea. Erlijio faltsuez eta jainko faltsuez idazten ari nintzenez, nola egin nezakeen, eskandalu eta baita bekatu larrian ere agian erori gabe, benetako fedeari laguntza erregu egin? Bidezkoagoa zen, ekaitza amaitutakoan, Vasco da Gamak esker emate bat egitea. Eta nori egin esker onezko otoitza? Egiazko jainko bakarrari.

Aita Bartolomeu Ferreira

Eta erantzunaren bigarren zatia?

Luís de Camões

Bigarrena lehenengoaren eskutik dator. Jaungoikoa, Gure Jaun Jesu Kristo, Ama Birjina eta santu guztiak beren borondatez agertzen dira, eta ez poeten edo beraien apeten nahierara. Pentsatu al du Berorren Agurgarritasunak nola izango zen nire liburua baldin eta aintzineko erromatar jainko eta musenen orde, dibinitatearen esku hartzeak Ama Birjinaren, Gure Jun Jesu Kristoren edo santuen esku egongo baziren?

Aita Bartolomeu Ferreira

Horrela da. Argudio ona da zurea.

Luís de Camões

Pozten naiz Berorren Agurgarritasunak horrela onartzea. Imajina dezagun jainkoen kontzilio bat non, jainko paganoen orde, Jupiter, Marte, Neptuno, Venus, Bako, Merkurio, gure fedearen santuak eta santak egongo ziren. Hauetatik, zeintzuk izango lirateke portugaldarrei beraien itsas nabigazioetan lagunduko lieketenak? Are larriagoa oraindik: zeintzuk kontra egongo liratekeenak?

Aita Bartolomeu Ferreira

Buru argiko pertsona zara, Luís de Camões jauna. Benetan diotsut ez nuela horretan pentsatu.

Luís de Camões

Eta gauza gehiago argudia nezakeen. Entzun adibide hau, eta amaituko dut. Egia da, guztiz, itsas armada espezien bila joan zela, baina baita fedea zabaltzera ere joan zen. Gogoan ibili pixka bat orain. Itsas armada fedea zabaltzera joan bazen, nondik aterako nuen nik santu edo santa bat nabigazioa oztopatuko zuenik Bakok egiten duen moduan?

Aita Bartolomeu Ferreira

Orain, horretaz pentsatzera eramaten nauzula, badut beste galdera bat zuri egiteko: zergatik ez zara Satanaz baliatu portugaldarren eta haien obren etsai izateko? Modu horretan erakutsiko zenuke nola, beste behin ere, fedea etsaiaren maltzurkeriak gainditzen dituen.

Luís de Camões

Ez nuen pentsatu. Hala ere, logikari ofentsa egitea litzateke Satanas erromatarren panteoiarekin lotzea. Hain zuzen, gogoan izan Berorren Agurgarritasunak Satanas dela itsusitasunaren mukurua. Deabrua estilo poetiko batez tratatzea nahi al du? Alegia, poesiak bere pertsonaiak janzten dituen apaingarriekin edertzea? Hobe izan da jainkoen fikzio horretaz baliatzea.

Aita Bartolomeu Ferreira

Jentilen jainkoez, zehazki esanda.

Luís de Camões

Jentilen jainkoez.

Aita Bartolomeu Ferreira

Horrela salbu geratzen da beti gure Fede Santuaren egia.

Luís de Camões

Hori da pentsatu nuena.

Aita Bartolomeu Ferreira

Eta zer duzu bederatzigarren kantuz esateko, Luís de Camões jauna?

Luís de Camões

Egia esan, harridurak hartuta nengoen Berorren Agurgarritasunak bederatzigarren kantua ez aipatzea.

Aita Bartolomeu Ferreira

Oraintxe ari naiz aipatzen. Esan.

Luís de Camões

Zer esango dizut? Berorren Agurgarritasunak ederki daki ekintza handiek merezi duten saria, edo berandu iristen dela, edo ez dela inoiz iristen. Horregatik imajinatu nuen leku bat munduan, irla bat, non heroiak beraien merezimenduen arabera hartuak izango ziren, lorez koroatuak, eta beraien gustuetan atsegin emanak.

Aita Bartolomeu Ferreira

Gustu horiek, zure iritzi eta irudimenaren arabera, zentzumenen gustuak lirateke, batez ere.

Luís de Camões

Ezinezkoa litzaidake zentzumenak ahaztea. Gorputzaren eta arimaren zentzumenen bidez ezagutzen dut mundua eta igartzen dut jaungoinkoaren presentzia.

Aita Bartolomeu Ferreira

Ederki dakizu zein bestelako zentzumenez ari naizela.

Luís de Camões

Ederki dakit, bai. Baina ezin dizut beste erantzunik eman.

Aita Bartolomeu Ferreira

Erantzun horrek, Luís de Camões jauna, hasiera batean ez zuen dena esaten. Gehiegi esaten du orain.

Luís de Camões

Berorren Agurgarritasunak horrela ulertzen badu.

Aita Bartolomeu Ferreira

(Isilune baten ondoren) Esan nahi dizuna da, Luís de Camões jauna, zure obra aztertzeko eman zidatenean zure aldeko gomendio asko jaso nituela. Horien berri badituzu, ez duzu nik orain aipatzeko beharra. Ez badakizu nortzuk gomendatu zaituzten, ez duzu nire ahotik jakingo.

Luís de Camões

Berorren Agurtasunak bere zereginari ezartzen dion zuhurtziaz jabetuta, ezin nuen besterik espero.

Aita Bartolomeu Ferreira

Liburu honetan, adimen handia eta erudizio handia erakusten duzu, ezin da ukatu. Hala ere, zure aldeko gomendio gutxiago izango bazenitu, uste dut ez nituzkeela hain erraz pasatzen utziko, ez bakarrik oraintxe hain modu bikainean defendatu dituzun puntuak, baizik eta baita setaz eta temaz goresten dituzun gustu sentsualak ere. Ezen, azken batean, gure artean argi gera dadila ez nauzula erabat konbentzitu.

Luís de Camões

Zure kontzientziaren aurka ari zarela ulertu behar dut?

Aita Bartolomeu Ferreira

Ez duzu horrela ulertu behar. Nire kontzientziak ez du zerikusirik auzi honetan. Egunen batean gaur dituzun babesleak faltako balitzaizkizu, edo pisu handiagoko arrazoiak haien gainetik nagusituko balira, eta egun horretan zure liburua berriro berrikusi beharko banu, jakin ezazu ez nauzula hain adeitsu iritziko.

Luís de Camões

Nire liburua zentsuratu ahal izango zenuke, kasu horretan, zure pentsaera jarraituz.

Aita Bartolomeu Ferreira

Ez didazu ulertu oraindik. Kasu horretan eta kasu guztietan Inkisizioaren Ofizio Santuaren pentsaera jarraituz zentsuratuko dut zure liburua.

Luís de Camões

Modu horretan, inoiz ez da jakingo nire liburuaz berorrek pentsatzen duena. Berorrek esaten dut, ez Ofizio Santuak.

Aita Bartolomeu Ferreira

Eta zer garrantzia du zure liburuaz nik pentsatzen dudanak, Luís de Camões jauna?

Luís de Camões

Bidezkoa eta beharrezkoa da poetari bere lanak sortzen dituen juzguak ematea.

Aita Bartolomeu Ferreira

Aita Bartolomeu Ferreirak bere baitarako gordetzen du juzgu hori. Une honetan, aski izan beharko zaizu Ofizio Santuak egiten duen juzguaren berri edukitzea, eta modu berean hartu beharko duzu bihar juzgua bestelakoa bada. (*Tonua aldatzen*) Gaurkoz, hau zen hitz egin beharrekoa. Aztertu beharko ditugu oraindik beste puntu jakin batzuk, baditut hainbat proposamen zuzenketak egiteko, eta onuragarria gertatuko zaizu horiekin bat etortzea. Komenigarria litzateke, eta adibide bakar hau jarriko dizut, zuk esatea, gero ikusiko dugu poemaren zein pasartean, jainkoek bertsoak inspiratzeko baino ez dutela balio, besterik ez. Nabarmen geratuko litzateke modu horretan gure fede santuaren egia. (*Muin egiteko eskua*)

luzatuz) Deitu egingo dizut beharrezkoa denean. Hemen itxaron, fraide bat etorriko da zu laguntzera. (*Ateratzen da*)

(Luís de Camões zutik geratzen da, besoak gurutzatzen ditu. Fraide bat agertzen da atean. Camões ateratzen da.)

Hirugarren eszena

Luís de Camõesen etxean, 1571eko apirila. Camões, Ana de Sá, Diogo do Couto. Luís de Camões, mahaian eserita, bere paperak esku artean erabiliz, idazten. Ana de Sá josten ari da.

Ana de Sá

Noiz joango zara berriro Aita Bartolomeu Ferreiraren etxera?

Luís de Camões

Ez dakit, ama. Berak dei egingo dit berriro.

Ana de Sá

Gibel-handi galanta da fraide hori, jaungoikoak barka nazala. Ez dakit zertarako balio izan diote horrenbeste letra eta horrenbeste ikasketa, gero zure liburua irakurtzeko asteak eta hilabeteak behar baditu. Eta are okerrago, hara joaten zaren bakoitzean triste itzultzen zara. Eta zenbat denbora daramagu horrela...!

Luís de Camões

Oraindik ez dira bi hilabete.

Ana de Sá

Gutxi falta zaio.

Luís de Camões

Pazientzia eduki behar da, ama.

Ana de Sá

Pazientzia gehiago oraindik? Duela urtebete itzuli zinen, zure denbora guztia eman duzu gortarako joan-etorrietan eta zure liburuarekin lagunduko dizuten pertsonekin hitz egiten, eta orain da unea, bazen garaia, jainkoari esker, fraidea ari dela zure bertsoetan arakatzen. Zer ari da bilatzen?

Luís de Camões

Aurkitu nahi duena ari da bilatzen. Eta bilatzen duzuna aurkitu nahi duzunean, beti topatuko duzu. Baina, agian, gauza hauetan zorigaitzokoena ez izateaz harrotu naiteke oraindik, ama.

Ana de Sá

Jainkoak nahi dezala. Izan ere, iragan den urte honetan zortea ez baita oso eskuzabala izan zurekin. Denek esaten didate oso poeta handia zarela, Portugalen dagoen handiena, inoiz ez dela zu bezalako beste bat egon, eta nik sinesten diet benetan, zer motako ama izango nintzateke zalantzarik izango banu? Batzuetan, hementxe ari naiz etxeko zereginetan, eta bat-batean zutaz esaten dutena datorkit burura, eta pozarren ezin kabituz hartzen dut.

Luís de Camões

Eta buruan darabilkizun gainerako guztia? Esadazu hori ere bai.

Ana de Sá

Hain poeta handia bazara, eta horrela sinesten dut, nola ez dut sinetsiko, zer egiten du orduan jauregiak edo bertan zu laguntzeko ardura izan beharko zuenak? Nola bizi izan dira Luís de Camões eta Ana de Sá bere ama hamabi hilabete hauetan?

Luís de Camões

Estuasun handiz bizi izan dira, eta horrela jarraitzen dute. Gosea pasatu dute, agian.

Ana de Sá

Gosea ez. Gosea ez dugu pasatu.

Luís de Camões

Niri lagunek lagundu didate, beraien etxetara bazkaltzera edo afaltzera gonbidatuz. Eta zuri, nork lagundu zizun?

Ana de Sá

Gutxi jaten dut nik.

Luís de Camões

Jateko gehiago ez duzulako.

Ana de Sá

Etorkizuna hobea izango da.

Luís de Camões

Beti esaten da hori, orainaldia ona ez denean. Baina orainaldia ona bada, edo itxurazkoa, orduan biharkoa beldurrez begiratzen ematen dugu eguna.

Ana de Sá

Egun guztiek eduki beharko zuten ongia eta gaizkiaren bere zatia. Hain zuzen, Juangoikoak ongia eta gaizkia orekatzeko arduraren hartu beharko luke, asebeteta daudenak gehiegi harrotu ez daitezen, eta pobreek itxaropena erabat gal ez dezaten.

Luís de Camões

Ez gara pobreak, ama. Ez dugu esperantza galdu behar.

Ana de Sá

Luís de Camões pobre da. Portugalgo poeta handiena pobre da, nire semeak jateko ere ia ez dauka.

Luís de Camões

Eta zergatik izan beharko luke aberatsa zure semeak? Indian aberasten asmatu ez zuenak ez du merezi Portugalen zortea bere alde edukitzea.

Ana de Sá

Etsita zaude, Luís.

Luís de Camões

Ez, ama, ez nago etsita. Portugalen bizi naiz. Esperientziak erakutsi didana dakit. Talentua eta irudimena ordainduko duen dirurik ez dagoela esaten den moduan, modu berean esan beharko litzateke horrexegatik beragatik inor ez dagoela tasun horiengatik ordaintzeko prest. Baina, tira, ez gaitzala etsiak hartu. Liburuak argia ikusten duenean, niri pentsio bat aitortzeko agindua emango du agian erregeak. Bestelako kezka handiagotatik aparte biziko gara, orduan, zu eta biok.

Ana de Sá

Zure liburuak argia ikusten duenean, erregeak pentsio bat aitortuko dizu agian. Argia ikusten duenean... agian... Hilotzaren zapatak dira horiek, ez dute balio mundu honetan bizirik jarraitzen duenaren oinentzat.

Luís de Camões

Bestelako kasuak ikusi izan dira, ama. Begira João de Barros. Bere alargunari 50 mila errealeko pentsioa eman zion erregeak; eta Jerónimo de Barrosek, bere aitak eginiko zerbitzuengatik, 150 mila errealeko pentsioa jasotzen du.

Ana de Sá

Handikien pare biziko da Ana de Sá bere semea hiltzen denean. Pozarren pozez algaraka hastea nahi al duzu?

Luís de Camões

Lasai, ama.

Ana de Sá

Hil ondorengo pentsioez hitz egiten didazu, eta lasaitzeko eskatzen didazu?

Luís de Camões

Bizirik nagoela jasoko dut, lasai.

Ana de Sá

Bizirik, bai. Baina ez bihar, ez datorren urtean ere. Gaur eman behar dizute pentsioa, atzo emana behar zizuten. Eta ez dut niregatik esaten, jainkoak zigortu nazala egia ez badut esaten. Zuregatik da, eta zure merituengatik. Ni ez naiz gortera joan, baina Diogo do Coutok eta D. Francisca de Aragão andereak esandakoari sinesten diet, eta baita bertako kontuen berri ematen didaten beste pertsona zintzo batzuei ere. Mourarian ni Luís de Camõesen ama naizela esaten da dagoeneko, poetaren ama, jendeak andere bati zor zaion errespetuaz hitz egiten dit, baita zuk idatzitakoak irakurri ez dituzten horiek ere esaten dute zu poeta handia zarela. Jende guztia pozik dago eta iritzi berekoa da. Zeren zain dago, orduan, erregea? Luís de Camões miserian hiltzen den egunean zer esango dute erregeari buruz?

Luís de Camões

Egun hori iritsi baino lehen helduko da pentsioa, ama.

Ana de Sá

Bada, hel dadila, zurekin daukaten zorra ordaintzen hasteko behingoz. *(Isilunea)*
Zoritzarrekoa naiz inork ez baitzidan irakurtzen irakatsi. Luís, irakurri niretzat zure liburuaren bertso batzuk.

Luís de Camões

Bertso batzuk? Zuri bertso batzuk irakurtzea nahi duzu? Itxaron apur bat, ea egoera deskribatzeko harira datozen batzuk topatzen ditudan. Utzidazu bilatzen hemen... Hauek ez dute balio... Hauek... Hauek... Begira, hauexek... Hamargarren kantuaren hasiera. Venusen uhartean amaitua da dagoeneko nabigatzaileen olgeta, eta orain, entzun adi *(Irakurriz.)*

Orduan, edertasun paregabeko ninfak, esku leunez

Harturik maitaleak, jada pozkarioz asebetarik,

Egur noblez eta metal preziatu baliotsuez

Apainduriko jauregi distiratsuetara igo zirelarik,

Bertan, mahai ugari oparo kausitu, jaki fin bikainez

Erreginaren aginduz beraientzat horniturik,

Nekeak hustutako gorputz haien ahulezia

Sendatuko zien ordaina ederki baitzuten merezia.

Zer deritzozu asebetekada horretaz?

Ana de Sá

Bazkaria eta afaria otordu bakar batean egina dudala deritzot. Eta bihar ere ez dudala zer jaterik izango. Pentsioa ere ez dugu beharko jada. *(Barre egiten dute biek. Atea jotzen dute. Ana de Sá irekitzera doa. Diogo do Couto da)*

Diogo do Couto

Luís Vaz, Damião de Góis preso dago Ofizio Santuan.

Luís de Camões

Zer? Damião de Góis preso?

Ana de Sá

Ama Birjina maitea! Gizajoa...

Luís de Camões

Nola jakin duzu?

Diogo do Couto

Gortean esan didate. Atzotik dago preso. Ai, Luís Vaz, gizon miresgarri hori preso egotea...!
Hau zorigaiztoko lurraldea bizi garen honetan!

Luís de Camões

Nork salatu du?

Diogo do Couto

Ez dakigu.

Ana de Sá

Eta zer kargu leporatzen dizkiote?

Diogo do Couto

Ana de Sá anderea, nola nahi duzu nik esatea? Ofizio Santuaren atzaparretan erortzen direnen kasuan epaia publiko egin arte baino ez da haien berririk izaten. Salatzaileak ez dira plaza publikora ateratzen egindako salaketaz bere burua loriatzera, eta inkisidoreek ere, beraien aldetik, ez dute ahoa irekitzen Inkisizioaren jauregiko hormetatik kanpo prozesuez hitz egiteko.

Luís de Camões

Damião de Góis, preso.

Ana de Sá

Baina, zergatik? (*Negarrez*) Zergatik?

Diogo do Couto

Asko bidaiatu zuen.

Ana de Sá

Eta hori arrazoi bat da? Zuk ere bidaiatu duzu, zuk eta Luís Vazek.

Luís de Camões

Guk? Gu Indiara baino ez gara joan.

Diogo do Couto

Damião de Góisek Europan ikasi eta irakatsi zuen. Bertan ditu bere lagun minenak. Gogoratzen duzu, Luís Vaz, nola hitz egiten zigun Erasmo Rotterdamgoari buruz?

Luís de Camões

Gogoratzen dut. Horregatik atxilotu dute?

Diogo do Couto

Nork daki? Nork daki zenbat urtez egon da Ofizio Santua une honen zain? Damião de Góis ondo moldatzen zen luteranoekin, bihotzetik hitz egiten duen gizona da, ez oso mezazalea, behar diren guztiak ditu inkisidoreen gustukoa ez izateko.

Ana de Sá

Zer gertatuko da berarekin? Adinean sartuta, ni baino zaharragoa. Bizitzeko geratzen zaizkion urte apurretan, zergatik ez diote bakean hiltzen utziko? (*Luís de Camões*) Eta zu, kontuz ibili, Luís. Ez ahaztu Damião de Góis familiakoa dugula gainera. Esaten dituzunak tentuz esan, eta zaindu etsaiengandik. Eta zu, Diogo do Couto, odolberokoa duzula bihotza...

Diogo do Couto

Salaketen mende gaude denok, begitan gaituen edozeinen mende, hori da egia zitala. Portugalek ez du nire hilotza hartuko.

Luís de Camões

Zer esan nahi duzu?

Diogo do Couto

Esan dudana. Indiara itzuliko naiz. Esana nizun, eta orain erabakia hartu dut.

Luís de Camões

Damião de Góisen kontuagatik?

Diogo do Couto

Bai... Ez dakit... Dena batera da, Luís de Vaz... Hain handia den tristezia hau. Portugal tristeziaz ari da hiltzen. Indian ez gara alaiagoak, egia da, baina lurra bestelakoa da, ez dut harekiko zor gehiagorik izango, bizitzea besterik ez.

Ana de Sá

Izurrite hau...

Luís de Camões

Zer izurriteaz ari zara, ama? Izurriterik ez dago jada Lisboan...

Ana de Sá

Diogo do Couto zurekin Indiatik itzuli zenean, egun batean esan zidan, hementxe bertan, India Portugalek jasaten duen gaixotasuna dela. Susmoa dut nik garesti ordaintzen diogula gaixotasun hori.

Luís de Camões

Atsedena hartu. Damião de Góis libre utziko dute laster, eta Diogo do Couto iritziz aldatuko da.

Diogo do Couto

Ez dut aldatuko. Eta Damião de Góisi dagokionez, lehenengo aldia izango litzateke Inkisizioaren presondegietara errugabe sartu den norbait errudun ateratzen ez dela. Hain azkar ez dugu ikusiko, eta nik ez dut ikusiko, ziur, aurretik abiatuko bainaiz.

Luís de Camões

Aita Bartolomeu Ferreirak bere aurrera joateko deitzen didanean jainko eta jainkosei buruz eztabaidan aritzeko, eta gure fedearen egia begiratzea eta guardatzea zein beharrezkoa den esateko... (*Isilunea*) Infernuko zigorretara kondenatu izan nadin instant bakar batez ahazten badut jauregi hartan bertan, imajinatu ere ezin dudan ziega batean, Damião de Góis dagoela...!

Ana de Sá

Izurrite hau!

Laugarren eszena

Inkiszioaren Jauregiko lehengo sala berbera. Aita Bartolomeu Ferreira, Luís de Camões.

Aita Bartolomeu Ferreira

Sar zaitetz, Luís de Camões jauna. Iritsi da, azkenean, nire lana amaitutzat emateko unea, eta, horrekin batera, zure ezinegona baretzeko tenorea. Erabakia hartuta daukat dagoeneko, laster helaraziko dizut horren jakinarazpena, nahi duzunean inprimatzeko lizentzia eskatu ahal izango duzu horrela.

Luís de Camões

Nahikotzat ematen du Berorren Agurgarritasunak nik egindako aldaketak orduan? Ez da ezer gehiago egongo kentzeko edo gehitzeko? Ez dut esanahia gehiago bihurritu beharko nire intentzioa zure nahikarietara lotzeko modu mingarrian sakrifikatu gabe?

Frai Bartolomeu Ferreira

Jainkoari eta egoerari eskerrak eman zure obra gehiago aldatu behar ez izateagatik. Gogoan duzu izan genuen gure aurreko elkarriketa...

Luís de Camões

Gogoan dut.

Frai Bartolomeu Ferreira

Esker txarrekoa ez izan orduan. Ez ahaztu askoz arrazoi potoloagoak izan zenitzakeela kexati agertzeko.

Luís de Camões

Ondo ulertzen badizut, eskertuta egon beharko nintzateke jasandako kaltearengatik, are okerragoa izan baitzitekeelako oraindik ere.

Frai Bartolomeu Ferreira

Horrela da. Baina ez du merezi kontu horretaz burua gehiago nekatzea. *(Beste tonu batean)* Erabakia irakurriko dizut eta gero joan zaitetzke. Jakinarazpenari dagokionez, datorren astean

etorriko zara horren bila. Entzun. (*Irakurtzen du*) “Inkiszio Santuko Nagusiaren aginduz, Luís de Camõesen Os Lusíadasen Hamar Kantu hauek aztertu ditut, portugaldarrek Asian eta Europan egindako arma-ekintza adoretuak azaltzen dituenak, eta ez dut haietan eskandaluzko ezer aurkitu, ezta fedearen eta ohitura onen aurkakorik ere ez; irakurleak ohartarazi beharra dagoela deritzot soilik, Indiarako nabigazioan eta bertara iritsita portugaldarrek gaituztako zailtasunak nabarmentzearren, Autoreak jentilen jainkoen fikzio batez baliatzen dela. Eta San Agustinek Retractationes bere obran aurretik idatzitako De Ordine liburuan Musak jainkosatzat izendatu izanaz damu agertu arren, hau Poesia eta artifizioa baino ez denez, eta Autoreak, Poeta den aldetik, estilo poetikoa apaindu besterik nahi ez duenez, ez dugu eragozpenzat jotzen jainkoen alegia hau, modu horretan ulertuta beti ere, obran azaltzea. Salbu geratuz, edonola ere gure fede santuaren egia, alegia, jentilen jainko guztiak deabruak direla. Horregatik guztiagatik, liburuak inprimatua izateko merezimendu nahikoa duela uste dut, Autoreak talentua eta erudizioa handiak erakusten baititu giza zientzietan. Eta horren fede emateko sinatzen dut hemen. Frai Bartolomeu Ferrira.” (*Tonua aldatuz*) Hauxe da. Konturatzen bazara, zure talentua eta zure erudizioa nabarmenduz bukatzen dut.

Luís de Camões

Konturatu naiz, eta eskuan muin egiten dizut horregatik. (*Isilunea*) Esadazu, aita, zer moduz dago Damião de Góis?

Frai Bartolomeu Ferreira

Zer izen esan duzu?

Luís de Camões

Damião de Góis? Zer moduz dago Damião de Góis?

Frai Bartolomeu Ferreira

Luís de Camões jauna, talentuaz eta erudizioaz ondo jantzita zaude, baina ez zuhurtziaz.

Luís de Camões

Zuhurtzia falta al da atxilo dagoen senide baten berri nahi izatea?

Frai Bartolomeu Ferreira

Jakin-nahi hori, gehienetan, errukizko betebeharra ere badela esango nizuke. Ez, ordea, kartzela Ofizio Santuarena denean. Luís de Camões jauna, utzidazu aholku bat ematen. Alde egin ezazu orain, nire erabakiaren berri daukazu dagoeneko, zure aldekoa dena hain zuzen, zure liburua argitaratu; nire aldetik, ez dut gogoan izango zuk egindako galdera, Damião de Góisekiko erakusten duzun gehiegizko interesa.

Luís de Camões

Berorren Argigarritasunak ez dit eragotziko berorrek ere errukizko betebehartzat jotzen duen hori praktikatzea.

Frai Bartolomeu Ferreira

Eragotziko dizut. Nahikoa zait sala honetatik atera eta zu kanpora laguntzeko agindua ematea. Ez nazazu nire onberatasunaz damutzerara behartu.

Luís de Camões

Aita, zergatik dago kartzelan Damião de Góis? Zeintzuk dira egin dituen okerrak? Ia hirurogei eta hamar urte dituen gizon batek...

Frai Bartolomeu Ferreira

Luís de Camões jauna, hau eskandaluzkoa da. Nor zara zu Inkisizio Santuaren arrazoien kontra egin nahi izateko, ederki asko dakizunean Auzitegi Santu honen azken helburua heresiak eraztea eta judaismoa, sorginkeriak eta luteranoak pertsegitzea denean? Horren guztiaren kontra zaude agian? Adi esaten duzunarekin, negar malko mingotsetan bukatu baitezakezu.

Luís de Camões

Damião de Góis heretiko al da? Juduzale, sorginzale edo luteranoa al da? Ez daukat halakotzat. Lekukotasuna eman nezake...

Frai Bartolomeu Ferreira

Seme maitea, motzean lotu zure haserre hori. Egidazu kasu, aita moduan esaten dizut.

Luís de Camões

Haserrea baretzeko esaten didazu. Zoru honen azpian, ordea, Damião de Góis egongo da...

Frai Bartolomeu Ferreira

Nahikoa. Errespetuari zor zaiona baino arreta handiagoz entzun dizut. Luís de Camões jauna, hitz bat baino ez. Badakizu nola irudikatzen den gure ordenaren fundatzaile santua? Eskuineko eskuan olibondo adar bat dauka, bakea eta errukia adierazten duena, ezkerreko eskuan justizia adierazten duen ezpata bat. Une honetan bertan, eta prozesua irauten duen bitartean, inkisidoreak ezpata eta olibondoa eskaintzen ari zaizkio Damião de Góisi. Bere esku dago olibondoa ala ezpata hartzea. Erruak aitor ditzala, Auzitegiak epaituko du gero.

Luís de Camões

Eta errurik ez badu?

Frai Bartolomeu Ferreira

Denek dituzte erruak. Nahikoa da pazientzia izatea eta bilatzea.

Luís de Camões

Berorren Agurgarritasunak nire liburuarekin egin duen moduan.

Frai Bartolomeu Ferreira

Jainkoaren nahia izan dadila Damião de Góis zure liburua bezain kalte gutxirekin libratzea.

Luís de Camões

Alde egin beharko dut, beraz, ezer jakin gabe?

Frai Bartolomeu Ferreira

Besterik espero al zenuen?

Luís de Camões

Ez, egia esan.

Frai Bartolomeu Ferreira

Zoaz. Baina, bide batez, zer dakizu zuk Damião de Góisi buruz? Duela urtebete itzuli zinen Indiatik... Zenbat aldiz hitz egin duzu berarekin?

Luís de Camões

Hiru aldiz, ez gehiago. Casteloko bere etxean egin nion bisita.

Frai Bartolomeu Ferreira

Ezin duzu ezer jakin Damião de Góisi buruz orduan. Eta, zure onerako, hobe duzu ez jakitea. Jaungoikoa ez tentatu, Luís de Camões jauna. Hamazazpi urte eman dituzu Indian, ezer ez zenekien bertan Damião de Góisi buruz...

Luís de Camões

Baina bere liburuak irakurri nituen gero, berarekin hitz egin nuen...

Frai Bartolomeu Ferreira

Berriro esango dizut, ezer ez dakizu Damião de Góisi buruz. Baina prozesua amaitzen denean agerian geratuko da dena.

Luís de Camões

Eta noiz bukatuko da?

Frai Bartolomeu Ferreira

Jaungoikoak baino ez daki hori.

Luís de Camões

Jainkoak lagun zaitzala, aita Bartolomeu Ferreira. Jakinarazpena jasotzera etorriko naiz.

Frai Bartolomeu Ferreira

Hitz bat oraindik. Norbait landetxe batean txakurrak esnatu gabe sartzen denean, kontu handiagoz egin beharko du irteeran ez esnatzeko.

Luís de Camões

Mehatxu bat da?

Frai Bartolomeu Ferreira

Ez. Abisu bat da zuretzat. Errukiz beterik. *(Txilina joaz)* Laster etorriko da lagunduko zaituena.

Luís de Camões

Aita, nor da landetxearen jabea? *(Ateratzen da)*

Bostgarren eszena

Egurats zabalean, Luís de Camões, Francisca de Aragão

Francisca de Aragão

Orain ez da arazo gehiagorik egongo, Luís de Vaz. Ofizio Santuak baimena eman du, eta Jorge da Costak, gaur berarekin hitz egin dudanak, esan dit ez dituztela egun asko beharko lizentzia emateko. Gero, inprimatu besterik ez duzu egin behar.

Luís de Camões

Besterik ez, esaten duzu. Urtebete eta erdi daramat espero eta desespero honetan, eta ez nago ziur beste horrenbeste espero beharko ez ote dudanik.

Francisca de Aragão

Ez da horrela izango. Bataila honetan irabazteko ezinbestekoa zena irabazita dago jada. Ofizio Santuak emandako baimena, erregeak aitortuko dizun pribilegioa. Aukera izango duzu...

Luís de Camões

Badakit zer baldintzekin ematen diren lizentziak. Horrenbeste urtetarako ez dadila inprimatu ez saldu izateanire errainu eta jaurerrietan azpian sinatzen duen honen lizentziarik gabe, kontrakoa egiten duenak halako zigorra jasoko... Inprimatzeko lizentzia daukat, nire obraren jabetza mantentzeko eskubidea daukat. Eta hori guztia erregeak etorkizunean Marokon egingo dituen balentriak kantatzeko nire burua proposatuz ordaindu behar izan dut.

Francisca de Aragão

Ez duzu horregatik gutxiago balio.

Luís de Camões

Egunen batean jakingo dut hori, behar adina urte bizi banaiz. Baina horrek ez du bueltarik, ez dugu lurrera isuritako esneagatik negar egin behar. Orain inprimatzaileari bere lana ordaintzeko dirua baino ez zait falta.

Francisca de Aragão

Biltzeko modua aurkitu beharko dugu.

Luís de Camões

Nola? Jauregiko atean jarriko naiz, eskua luzatuta, eta sartzen eta ateratzen direnei eskatuko diet: limosna bat, jainkoaren izenean, limosna bat Luís de Camõesek bere Os Lusíadas inprimatu ahal izateko, Indiatik dirurik ez zuela ekarri eta Ana de Sá bere amak emandako zopa urriei eta D. Francisca de Aragãoen babesari esker bizi dena.

Francisca de Aragão

Burutik jota zaude? Ez da nire babesari esker bizi zarela, zuk dituzun merituengatik da.

Luís de Camões

Hobe da gure burua hitzekin ez engainatzea, Francisca. Niregatik izan balitz, nik bakarrik, ezin izango nuen ezer egin. Ezta Mozanbiketik itzultzea ere. Lagunengatik izan ez balitz, auskalo bertan egongo ez ote nintzen oraindik. Hector da Silveira, bidaia ordaintzen lagundu zidana, itsasoan hil zen. Nahiago neu hil izan banintz.

Francisca de Aragão

Hector da Silveira bere senideek baino ez zuten ondoan beharko.

Luís de Camões

Ni ezta nire amak ere ez ninduen beharko.

Francisca de Aragão

Lotsatu egin beharko zinateke esan duzunaz.

Luís de Camões

Lotsatu egiten naiz. Baina zer axola du lotsatzeak edo ez? Non topatuko ditut liburua egiteko beharko ditudan hogeita hamar edo berrogei mila errealak?

Francisca de Aragão

Dena lortu da orain arte. Dirurik ere ez da faltako.

Luís de Camões

Ez dut ikusten nola. Zuk eman nahiko al didazu?

Francisca de Aragão

Eta horrela balitz? Luís de Camõesentzat desohorea da emakume batengandik dirua jasotzea? Emakume honengatik?

Luís de Camões

Desohorezko gauza askorik ez dago niretzat dagoeneko. Baina nire liburuak bere berezko merituari esker izan behar du argitaratuta, ez karitateagatik, nahiz eta maitasunak sortutako karitatea izan.

Francisca de Aragão

Orain dela ezer jauregiko atean limosna eskatzen jarriko zarela esan duzu. Hori onartuko zenuke baina ez duzu onartzen limosna ez dena eta ezin duena izan, maitasuna baizik, zuk zeuk diozun moduan?

Luís de Camões

Ez dakit nola azaldu. Kale eta plazetan limosna eskatzera joango banintz, dirua emango zidaten agian jateko. Baina ez zidaten emango liburua inprimatuko didan liburugileari ordaintzeko dela esango banu.

Francisca de Aragão

Orduan, eskua luzatuta Rossio plazatik pasatzen zarenean bertan egongo naiz ni, eta esaten dituzun horiek guztiek ez bezala esango dizut: diru hau, Luís de Vaz, ez da jatekoa erosteko, zure libururako baizik.

Luís de Camões

Eta nik erantzungo dizut: gorde zure dirua, andere hori, liburu honetan ez baitago soneto edo bertsorik oilo batekin edo bi atorrekin ordain daitekeena. Nire zorduna ez zara zu, erregea baizik, eta ez beste inor.

Francisca de Aragão

Zertarako urguilu handi hori? Burutik eginda zaude, Luis Vaz. Liburua erakutsi eta zure eta zure liburuaren aurrean zuretzat jauregiko ate guztiak irekita sar zintezkeela pentsatu zenuen, eta, jakina, tronu-aretoan sartuko zinela eta Beren Gorentasuna esertzen den lekutik altxa eta sarrerara harrera egitera etorriko zitzaizula bere ondoan esertzera esateko, eta modu horretan jasoko zuen Luís de Camõesek zor zitzaion aitortza orduan.

Luís de Camões

Sarkasmo handiz esaten duzu, baina egiatik asko dauka hala ere.

Francisca de Aragão

Italiako gortetan agian, entzun dudanez, horrelako menturak gertatzen dira, baina gu Portugalen bizi gara...

Luís de Camões

Eta erregea D. Sebastião da...

Francisca de Aragão

Irakurtzeari gorroto handia diona...

Luís de Camões

Nire liburua irakurri nahi ez zuena eta nahi ez duena...

Francisca de Aragão

Ezta agindua ere ematen ez duena irakurria izateko.

Luís de Camões

Gorteak atek eta leihoak itxita dituen monasterioren antza du. Barruan norbait kanpoan bizi direnekin gogoratzen denean, hezur bat botatzen du hormaren gainetik baina ez dio erreparorik egiten ea pertsonak hozka egiten dioten edo txakurrak diren haginkatzen dutenak jakiteko.

Francisca de Aragão

Aspaldian, monasterio horren barruan bizi izan zinen denbora luzez, eta orain kexu zaude kanpoan zaudelako. Zure liburua argitaratu eta gorteak atek irekiko dizkizu berriro zuretzat.

Luís de Camões

Ez dut uste. Damião de Góisek arrazoia zuen. Nire liburua nabigatzeko askok nahi duten belaontzia da, baldin eta beste inor ez bada bertan itsasoratzen beti ere. Erregeak nire alde egiten badu, kardinalak ez du egingo; kardinalak nire alde egingo balu, erreginak ez zuen egingo; erreginak baietz esanez gero, Câmaratarrek esango dute ezetz. (*Isilunea*) Zerbait esaten al da jauregian Damião de Góisi buruz?

Francisca de Aragão

Ez da ezer esaten. Eta zergatik esan beharko zuten? Damião de Góis preso dago...

Luís de Camões

Badira bost hilabete.

Francisca de Aragão

Ahaztu Damião de Góis. Zure liburuaz ari gara.

Luís de Camões

Bai, ahaztu dezagun Damião de Góis. Utz dezagun Damião de Góis Inkisizioaren ziegatan usteltzen, utz dezagun zomorroek eta sarnak jan dezatela, utz diezaiogun Ofizio Santuari erruak eta salaketak leporatzen... Ba al dakizu zer esaten den? Luís de Castro, Damião de Góisen suhia bera, bere kontrako salaketa jartzera joan zela? Gogoan duzu nola Juan de Castrori berari, hain zuzen, eskatu ziola Damião de Góisek inkisidore nagusiaren aurrean nire alde mintzatzeko? Konturatzen zara, Francisca de Aragão, nola hainbeste pertsona eta elkarri hain kontrakoak, elkartu ziren nire liburua babestearren?

Francisca de Aragão

Zure buruaz eta zure liburuaz arduratu orduan, eta utzi bere bidea egin dezaten zureak ez diren kontuek. Ezin duzu ezer egin Damião de Góis laguntzeko. Dagoen lekuan, ezta erregeak ere ezin du defendatu, hori bada buruan duzuna.

Luís de Camões

Ez daukat buruan, ez, erregea inkisidore nagusia baino inkisidoreago baita.

Francisca de Aragão

Zure liburuaz arduratu. Liburugilearekin hitz egin eta esango didazu gero zer prezio eskatzen duen. Ikusiko dugu zer egin negozio hau bideratzeko.

Luís de Camões

Francisca, ahal duzun guztia egin duzu nire alde. Ezerk ez dizu behartzen gehiago egiteko. Hemendik aurrerakoa nire kontua da orain. Liburugile bat bilatuko dut, António Gonçalves

agian, aurten *De rebus Emmanuelis* D. Jerónimo Osório Silveseko apezpikuaren liburua inprimatu duena. Nire negozioez arduratuko naiz.

Francisca de Aragão

Laguntzea debekatzen didazu?

Luís de Camões

Inorengandik espero nezakeena baino askoz gehiago egin duzu. Uztazu nik neuk ere zerbait egiten. Itsasontzia arotzek eta kalafetariak egiten dute, baina gobernatu kapitainak egin behar du azkenean.

Francisca de Aragão

Horrela ez da elkar ulertzeko modurik egongo, Luís de Vaz.

Luís de Camões

Elkar ulertuz bizi izan gara gu, baina ez gauza guztietan.

Francisca de Aragão

Eta gauza horiek, zeintzuk dira?

Luís de Camões

Zu, juregian, ni Mourarian; zu, ederra, ni itsua eta zaharra; zu, zetazkoa, ni oihal zatarrekoa; zu mahai oparokoa, ni mahai urrikoa.

Francisca de Aragão

Eta maitasuna?

Luís de Camões

Ez dut maitasuna ukatuko. Ez ukatu zuk desenkontruak.

Francisca de Aragão

Elkarrekin gaude. Luís Vaz, ez ukatu.

Luís de Camões

Noiz arte? Francisca de Aragão Luís de Camõesekin ezkonduko da? Bertsoak baino zerbait gehiago al du Luís de Camõesek Francisca de Aragãoi eskaintzeko?

Francisca de Aragão

Daukadana daukat. Ez dut gehiago eskatzen.

Luís de Camões

Onartu ere ez zenuen egingo, nik eskaini nahiko banizu. Horrelakoxeak dira jauregiko amodioak, ahulenetik apurtzen dira beti.

Francisca de Aragão

Esperientziaz hitz egiten duzu.

Luís de Camões

Horrela da.

Francisca de Aragão

Neure buruari galdetzen diot nora iritsi nahi duzun hainbeste itzulingururekin. Hemen bukatzen da gure maitasuna?

Luís de Camões

Ez dut horrenbeste esaten. Zurea bukatuko da, bihar edo etzi. Edo datorren hilabetean. Nirea ez da bukatzen, bukatuta ere ez zegoen moduan berriro ikusi zintudanean.

Francisca de Aragão

Trufatzen ari zara? Neu izan nintzen berriro elkar maitatzea nahi izan zuena.

Luís de Camões

Horrela da. Baina Indiara abiatu nintzenean nirekin joan ziren Portugalen nituen maitasunak. Beldur zara zurea itsasora erori ote zen? Nirekin joan zinen, nirekin itzuli zinen. Berriz agertu zintenean, nire bihotzaren oroimenean ezagutu zintudan. Eta berriro maitatu zintudan.

Francisca de Aragão

Eta orain?

Luís de Camões

Orain? Nekatuta nago, Francisca. Horregatik izango da ez dudala gehiago esateko.

Francisca de Aragão

Zer nahi duzu, Luís Vaz, ni negarrez hastea? Nik atsekabea hartzea nahi duzu?

Luís de Camões

Ez da hori nahi dudana. Maitasun honengatik...

Francisca de Aragão

Zuk ez duzu inor maite.

Luís de Camões

Oker zaude. Maitasunaren irudikapena maite dut. Maiteko ez banu, ez lidake asko balioko haragiz eta sentimenduz osatutako gizona izateak.

Francisca de Aragão

Jaungoikoak, guri begira dagoela, badaki ez zaitudala utzi nahi.

Luís de Camões

Hala sinesten dut. Baina Jaungoikoak jakingo du agurea izateko gertu naizen hau maitatu ahal izango duzun bihar. Begiradazu ondo. Sorbaldak erortzen bazaizkit, burua tente mantentzea ezin badut, belaunak okertzen badira, zer gertatuko da zure sentimenduarekin? Eta zer gertatuko da nirekin, zer gertatzen ari da dagoeneko, disimuluan ari naizela askotan, zure aurrean baldin banago batez ere. Nola maitatu ahal izango zaitut orduan?

Francisca de Aragão

Urguilua da hori, Luis de Vaz, eta oso handia. Gaur ez dago zer egiterik zurekin. Zer esango didazu bihar ni ikustean?

Luís de Camões

Andere.

Francisca de Aragão

Nire izena Francisca da.

Seigarren eszena

Antonio Gonçalvesen moldiztegia, 1571ko urria. Luís de Camões, Antonio Gonçalves, Zerbitzaria.

Luís de Camões

(Sartzen) Jaungoikoak gorde zaitzala, Antonio Gonçalves maisua.

Antonio Gonçalves

Ongi etorria izan Berorren Mesedea.

Luís de Camões

Emango dizkidazun albisteen arabera ikusiko dut ongietorria onerako edo txarrerako izango den. Nire liburuaren kontuak egin dituzu? Esan ahalko didazu inprimaketak eta gainontzeko gastuek zenbateko kostua izango duten?

Antonio Gonçalves

Ez dago Lisboan prezio hobeagorik egingo dizun liburugilerik, Luís de Camões jauna.

Luís de Camões

Denbora baino lehen ari zara zure burua goratzen, Gonçalves maisua. Txarra da hori.

Antonio Gonçalves

Lasaitu zaitetz. Hementxe dauzkat idatzita kopuru guztiak, papera, tinta, nire eta nire laguntzailearen etekina, tira, maketatu, inprimatu, hirurehun aleak tolestu eta josi, Berorren Mesedeak berrogei mila errealak ordaindu beharko ditu.

Luís de Camões

Berrogei mila errealak?

Antonio Gonçalves

Eta ez pentsa Berorren Mesedeak gehiegizko dirua denik.

Luís de Camões

Eta zuk ba al dakizu ea berrogei mila errealak ote ditudan?

Antonio Gonçalves

Berorren Mesedeak barkatuko du. Baina Berorren Mesedeak ez zuen ezer esan libururak zenbat kostatuko zuen galdetzera hona etorri zenean, ez eta ni ere ez nintzen hain ausarta izan, zure bidez edo beste baten bidez, jakin nahi izateko

Luís de Camões

Barkatu zuk, mesedez, Antonio Gonçalves maisua. Mundu honetan gauza guztiek daukate beren prezioa. Orain badakit zenbat balio duen zure lanak, ez dut jakingo, ordea, nireak zenbat balio duen.

Antonio Gonçalves

Liburuak saldu ondoren jakingo duzu. Izan ere, hamar urterako duzu salmenta eskubidea, hori da erregearen lizentzian idatzita dagoena.

Luís de Camões

Saldu ahal izateko, zer saldu eduki behar da. Eta nik, oraingoz, daukadana da berrogei mila errealak ordaindu beharreko ziurtasuna, baldin eta liburuaren osaketan gastatutako hainbeste urteak inprimatutako obra batean fruituak ematea nahi badut.

Antonio Gonçalves

Horrela izaten ohi da. Ezin dugu mundua aldatu. Nik ezin dut. Berorren Mesedeak liburua ekartzen dit inprimatzeko, nire etekina eta bestelako gastuak ordaintzen dizkit, eta inprimatu egiten dut nik. Ribeiran sardinak erostea bezalakoa da. Dirua esku honetan, arraina bestean. Hau ez dela liburuak egiteko negozio bat pentsatu behar du Berorren Mesedeak, arrantzalea naizela baizik, itsasora joan naizela eta arrainak ekarri ditut.

Luís de Camões

Gizabidetsua da egin duzun konparaketa. Esadazu, maisu, itsasora joan zarenean, ez duzu han naufragoren bat ikusi nonbait? Neu nintzen.

Antonio Gonçalves

Zein da Berorren Mesedearen erabakia? Baduzu zati bat aurrerakin moduan ematea orain, eta gainerakoa liburua inprimatuta dagoenean. Adibiez, orain hogeit mila erreal eman...

Luis de Camões

Ez dauzkat nik hogeita mila erreal.

Antonio Gonçalves

Zer espero duzu orduan nire aldetik? Ez dago nire esku erabakitzea zuk zeuk bakarrik erabaki dezakezuna. (*Isilunea*) Utzizko didazu zintzoki hitz egiten?

Luís de Camões

Esan.

Antonio Gonçalves

Nire aurrean dauzkat Erregearen lizentzia, Ofizio Santuaren erabakiaren agiria, baina ez dut ikusten normalean ikusten ohi dena: handiki bati edo influentzia duen pertsona bati egindako eskaintza.

Luís de Camões

Liburua ordainduko zuena edo ordaintzen lagunduko zuena.

Antonio Gonçalves

Hori da. Berorren Mesedeak barkatuko dit gehiegi hitz egin badut...

Luís de Camões

Ez dago barkatzeko ezer, Antonio Gonçalves. Egia esan, nire liburua aita pontekorik gabe joango da, ez du inoren babeserik merezi eta.

Antonio Gonçalves

Zure liburua irakurri dut, eta benetan dizut inork ezin diola merezimendurik kendu.

Luís de Camões

Aurretik beste batzuk ere esan dute gauza bera, baina hori, ikusten duzunez, ez zaio nahikoa izan.

Antonio Gonçalves

Zer egin behar dugu, orduan, Luís de Camões jauna? Zer egin nahi du Berorren Mesedeak?

Luís de Camões

Ez daukat zuri ordaintzeko. Itxaron dezakezu liburua atera eta saldu arte? Hortik bildu daitekeen diru guztia, baita niri dagokiona ere, zuretzat izango da...

Antonio Gonçalves

Hiru hilabete eman beharko nituzke zure liburua maketatu eta imprimatzeko. Zenbat hilabete gehiago, edo urteak, beharko ditut zure zorra kitatu ahal izateko? Luís de Camões jauna, ezin dut.

Luís de Camões

Emaizkidazu zoritxarreko peper horiek, gogoia ematen dit aurretik ibilia izan duten itsasora botatzeko. Hobe bertan geratu izan balira, eta baita idatzi zituenak ere.

Antonio Gonçalves

Bekatua litzateke.

Luís de Camões

Lasaitu zaituz. Errazagoa litzateke nire burua uretara botatzea. Noizbait esaten badizute horrela egin dudala, bertara joan eta nire liburua topatuko duzu hondartzan, harri baten azpian, zure zain. Sinetsi nahi dut orduan ez zeniola inprimatzeari uko egingo.

Antonio Gonçalves

Arindu ederra eman diozu barrenari.

Luís de Camões

Horrela izango da. Hemen utziko zaitut, Antonio Gonçalves maisua. Batek daki noizbait elkar ikusiko dugun berriro?

Antonio Gonçalves

Batek daki? (*Luís de Camões ateratzen da*)

Zerbitzaria

Maisu, zer esan nahi zuen Luís de Camões jaunak hitz mikatz horiekin?

Antonio Gonçalves

Berak ere ez daki agian. Zaude isilik, eta lanera.

(Aldaketa. Egun batzuk beranduago, pertsonaia berberak.)

Luís de Camões

(Sartzen) Jaungoikoa lagun izan duzu elkar ikusi genuen azken alditik, Antonio Gonçalves maisua?

Antonio Gonçalves

Txarretik ez zait ezer gertatu. Eta zuri?

Luís de Camões

Onetik ez zait ezer gertatu. Hementxe duzu nire liburua.

Antonio Gonçalves

Irtenbidea aurkitu diozu zure negozioari? Onetik zerbait gertatu zaizu beraz...

Luís de Camões

Ondo begiratu. Hor dago Erregearen lizentzia, hor dago Ofizio Santuaren erabakiaren agiria... Eskaintza ikusten duzu?

Antonio Gonçalves

Ez jauna.

Luís de Camões

Berrogei mila errealak ere ez dizkizut ekartzen.

Antonio Gonçalves

Ez dakit zer esan behar dizudan.

Luís de Camões

Nik esango dizut. Nahi duzu nire obraren jabetza eskubidea erosi, liburua maketatu eta inprimatu, eta zure probetxurako saldu? Zuregandik jabetzaren eskubidea eta lehenengo inprimaketaren truke adostutakoa baino beste ezer gehiago ez dudala jasoko deklaratuko dut.

Antonio Gonçalves

Itxoin, itxoin. Zer da Berorren Mesedea proposatzen ari dena? Nik argitaratzeko eskubidea erosi eta liburuaren jabetzarekin geratu lizentziak baimentzen dituzten hamar urteetarako?

Luís de Camões

Bai.

Antonio Gonçalves

Zure liburua salduko balitz...

Luís de Camões

Ez duzu negozio txarrik egingo.

Antonio Gonçalves

Baina, ez bada saltzen?

Luís de Camões

Ezin txarragorik ez duzu egingo.

Antonio Gonçalves

Zure zintzotasuna eskertzen dizut.

Luís de Camões

Besterik ez daukat emateko.

Antonio Gonçalves

Eta zenbat nahi duzu argitaratzeko eskubideagatik.

Luís de Camões

Berrogeita hamar errealak.

Antonio Gonçalves

Gehiegi eskatzen duzu, Luís de Camões jauna. Pentsatu behar duzu horietaz gain liburuaren inprimaketak dakarren berrogei mila errealako kostua gehitu beharko dudala, guztira laurogeita hamar mila errealeko gastuari egin beharko nioke aurre.

Luís de Camões

Horrela da.

Antonio Gonçalves

Osorik berreskuratuko ez ditudanak agian.

Luís de Camões

Esaten duzun moduan da.

Antonio Gonçalves

Ez dakit negozioa interesatzen zaidan.

Luís de Camões

Ez baduzu egiten ez duzu inoiz jakingo. Antonio Gonçalves maisua, ez dago nik jo dezakedan beste aterik. Zurea da bakarra. Nire liburua ere emango nizuke, inprimatzeko baldintza bakarra besterik ez jarrita. Baina jan behar dut, behar dugu, nire amak eta biok. Eman berrogeita hamar mila erreal eta nire jabetza eskubidea emango dizut, nahi duzuna egin liburuarekin, saldu edo ahal duzuna. Egongo da irakurriko duenik, zalantzarik ez izan, eta nik bertan jarritakoak adina balio badu, agian etorkizunean ezaguna izango zara, letraz letra, orrialdez orrialde, Luís de Camõesen Os Lusíadas argitaratzeagatik. *(Isilunea)* Barkatu egilearen harropuzkeria.

Antonio Gonçalves

Luís de Camões jauna, utzidazu zure liburua. Pasa hemendik bihar orain esandakoaz lasiago hitz egiteko. Pentsatu egin behar dut, nire kontuak egin. Bihar esango dizut.

Luís de Camões

Bihar arte, Antonio Gonçalves maisua. *(Ateratzen da)*

Zerbitzaria

Hauxe bai ez zenuela espero. Zer egingo duzu?

Antonio Gonçalves

Zer dakit nik! Zaude isilik, eta lanera.

Zazpigarren eszena

Jauregiko saloia, 1571ko abendua. D. Catarina de Áustria, D. Henrique kardinala, aita Luís Gonçalves da Câmara, Martim Gonçalves da Câmara.

D. Catarina

Esan, Martim Gonçalves da Câmara

Martim da Câmara

Esango dut. Haren Eminentzia Alexandrino kardinala Madriletik atera da jadanik, etzi Portugalen sartuko da. Gure enbaxadoreak bildu bazituen, espero dut gure mezulari batek azken berriak ekartzea Haren Eminentzia iritsi baino lehen ere. Orduan jakingo dugu zer erantzuna eman dion Espainiako Felipe erregeak.

Kardinala

(D. Catarinari) Berorren Gorentasunak imajinatu ahal du zer erantzun dion Felipe II.ak kardinalari?

D. Catarina

Ez naiz Lisboatik atera, Berorren Eminentzia bezala, eta ez dauzkat mezulari pribaturik. Eta izango banitu ez lirateke zureak baino azkarragoak. Imajinatzeari dagokionez, jakin beza Berorren Eminentziak asko imajinatzen dudala, baina ez puntu horretarino. Etorkizuna irgartzea litzateke hori, eta etorkizuna Jaungoikoari dagokio.

Kardinala

Beste modu batez galdetuko dut orduan. Zure ilobaz eta Espainiako politikaz ezagutzen duzunaren arabera, Aita Santuak egindako proposema Madrilen ondo hartua izatea espero duzu?

D. Catarina

Zein proposamenaz ari zara?

Kardinala

Portugal, Espainia eta Frantzia Turkiaren kontra bat egitearena. Alexandrino kardinalak ekarriko duen bigarren proposamena Portugalgo gorteari dagokio bakarrik.

D. Catarina

Ez zaigu denbora asko falta jakiteko. Baina zalantza daukat Felipe erregeak ontzat ematea.

Martim da Câmara

Zuen baimenarekin... Berezko zailtasun batzuk dituen egoera batean gaude. Erraza izan zaigu jakitea zertara datorren Haren Eminentziak, Vatikanok ez du ezkututzen hiru potentzia katoliko handiak Turkoaren aurkako borrokan bilduta ikusteko duen gogo bizia. Hala ere, ez dakigu zer erabaki duen Frantziako gorteak, ezta...

D. Catarina

Frantziako Henrikek beste gerra batzuk ditu etxe barruan. Ez dut uste, berak horrela nahiko balu ere, bere armada elkartu dezakeenik portugaldar eta espaniar armadekin. Frantzia erlijio gerretan sartuta dago, protestanteak katolikoek aurka. Nor joando da Turkiaren aurka borrokatzera? Katolikoak? Protestanteak? Ala orain arte egin ezin izan duten bakea egingo dute bat-batean horretarako bakarrik?

Luís da Câmara

Hala da. Bestela ere, horren garrantzitsua al da jakitea zer erabaki duten Espainiako eta Frantziako erregeek? Pio V. Aita Santuaren proposamenarekin ados egonda ere, Portugalgo erregearen adostasuna beharko litzateke beti. Eta hori ez da gertatuko.

Kardinala

Nola dakizu?

Luís da Câmara

Erregeak berak ere ez du ezkututzen. Portugalek Turkoaren aurka bakarrik borrokatuko duela esaten du.

D. Catarina

Ezinezkoa da.

Luís da Câmara

Hori da erregeak esaten duena.

D. Catarina

Ezinezkoa dela?

Luís da Câmara

Ez, Gorentasuna. Erregeak Portugalek Turkiaren aurka bakarrik borrokatuko duela esaten du.

Martin da Câmara

Eta bigarren proposamenari dagokionez...

Kardinala

Agian Câmara anaiek iturri oneko informazioa izango dute horretaz ere...

Luís da Câmara

Eminentzia, albo batera utzi zure susmoak. Jakin behar duzu ez nire anaiak ezta nik neuk ere itzalik ez dugula Haren Gorentasunaren gogoan horrenbeste luzatzen ari den ezkontaren gaiari dagokionez.

Kardinala

Jakin beharko nuke, baina ez nago hain ziur horretaz. Edonola ere, zu erregearen konfesoarea zaren aldetik, esadazu: Alexandrino kardinalak Portugalgo erregea Margarida de Valoisekin, Frantziako Henrique III.aren alabarekin, ezkontzeko ekarriko duen proposamenari ezezkoa emango dio Haren Gorentasunak?

Luís da Câmara

Atzotik gaurkora erregeak ez badu iritziz aldatu, ezezkoa emango dio.

D. Catarina

Zenbat denbora gehiago tematuko da erregea asmo horretan?

Luís da Câmara

Ez dakit, Gorentasuna. Nik ere, zuk bezala, asmatzen ez dakit. Eta etorkizuna Jaungoikoaren esku dago.

Kardinala

Noizko esan du Erregeak itzuliko dela ehizatik?

Martim da Câmara

Lainoa altxatzen denean. Baina lainoa ez da altxatzen.

Zortzigarren eszena

Lisboako kale batean, 1572ko martxoko egun bateko arrastiria. Luís de Camões, Antonio Gonçalvesen zerbitzaria. Atzealdean, jendea batetik bestera joan-etorrian.

Zerbitzaria

Luís de Camões jauna, oraintxe bertan nindoan ni zure etxera. Baina, topo egin dugunez, hementxe duzu Antonio Gonçalves maisuak bidaltzen dizuna. Bukatu dugun lehena da. *(Alde egiten du)*

Luís de Camões

(Liburua bi eskuekin estuki helduz) Zer egin behar dut liburu honekin? *(Isilunea. Liburua irekitzen du, besoak luzatzen ditu apur bat, aurrera begiratzeko du)* Zer egin behar duzue liburu honekin? *(Isilunea)*

Emakume ahotsa

(Poliki irakurriz) Os Lusíadas...

Gizon ahotsa

(Idem) ...Luís de Camõesek idatzia...

Emakume ahotsa

(Idem) ...Lehenengo Kantua...

Ahots-korua

(Idem)

Hautatutako armak eta gizon apartak

Lusitaniako Mendebaldeko hondartzatik

Aurretik inoiz zeharkatu gabeko itsasoetan barrena...

(Apurka-apurka, ahotsak gero eta xumeago entzuten dira harik eta hurrengo bertsoa ia entzunezina gertatu arte. Aldi berean, argia jaisten da iluna handituz foku bat baino ez geratzeraino, Luís de Camõesek estu eusten duen liburua argizatzen duena.)

Amaiera